

Kooperatibako Barne Araudia

2025ko ekainaren 2an
Delegatuen Batzar
Nagusian onetsia

ARAUDIAREN EDUKIA HOBETO ULERTU AHAL IZATEKO ARGIBIDEREN BAT BEHAR DUTEN TERMINOEN ETA ESAPIDEEN HAUTAPENA	6
Aurrerakin konputagarria	6
Lan-aurrerakina	6
Harpidetutako ekarpena	6
Egindako ekarpena	6
Lan-bazkide izateko hautagaia	6
Gutxieneko nahitaezko kapitala	6
Kontsumerismoa	6
Sarrerako kuota	7
Zuzendaritza	7
Ekitaldi ekonomikoa	7
Lanaldia	7
Lanaldia (motak)	7
Gehiengoak	7
Ahaidetasuna (mailak)	8
Zuzenbidezko eta izatezko bikoteen arteko erabateko parekidetasuna	8
Bazkidea	8
ONARRIZKO PRINTZIOAK	9
Kontsumitzailearen duintasuna	9
Lanaren duintasuna	9
Autokudeaketa	9
Solidaritatea	9
Antolamendua	9
Garapen komunitarioari laguntza	10
Aplikazio-eremua	10
LAN-BAZKIDEEN ONARRIZKO 10 BALIOAK KOOPERATIBAN	11
Partaidetza	11
Garapen pertsonala eta profesionala	11
Pertinentzia-sentimendua	11
Informazioa – komunikazioa	11
Kolektiboaren lehenetasuna indibidualtasunaren gainetik. Barne-solidaritatea	12
Dinamismoa. Aldaketara egokitzea	12
Bezeroarentzako orientazioa	12
Bizi-kalitatea	12
Konpromiso soziala ingurunearekin. Kanpo-solidaritatea	12
Profesionalizazioa	13
I. TITULUA. BAZKIDEENA.	14
I. KAPITULUA. ALTAK ETA BAJAK	14
1. Artikulua. Bazkideak onartzeko eskakizunak (estatutueta 11. Artikulua)	14
2. Artikulua. Onartzeko formaltasunak (estatutueta 11., 12., 13. Eta 14. Artikuluak)	14
3. Artikulua. Probaldia (estatutueta 11. Eta 30. Artikuluak)	14
4. Artikulua. Bazkidearen baja (estatutueta 22. Artikulua)	14
5. Artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak	15
6. Artikulua. Nahitaezko baja (estatutueta 24. Artikulua)	15

II. KAPITULUA. LAN-BAZKIDEEN LAN-ARAUBIDEA	17
I. ATALA. LAN-AURRERAKINAK (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	17
7. Artikulua. Aurrerakinen kontzeptua eta tartea	17
8. Artikulua. Lan-aurrerakina orduko zehaztea	17
9. Artikulua. Koeffiziente diferentziala	17
10. Artikulua. Lan-aurrerakinen gaineko fiskalitatea	17
11. Artikulua. Ordu berezien ordainketa	17
12. Artikulua. Lan-aurrerakinen ordainketa	18
12. artikulua. Bis. Solidaritate-funtsa	18
II. ATALA. APARTEKO ORDAINSARIAK ETA GAINERAKO ORDAINSARIAK (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	19
13. Artikulua. Aparteko ordainsariak	19
III. ATALA. LANALDIA (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	19
14. Artikulua. Lan-denbora	19
15. Artikulua. Banaketa	19
16. Artikulua. Laneko puntualtasuna eta presentzia	20
17. Artikulua. Lanaldi arruntetik kanpoko orduak	20
IV. ATALA. BAIMENAK ETA ESZEDENTZIA (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	20
18. Artikulua. (Edukirik gabe)	20
18 Bis artikulua. (Edukirik gabe)	20
19. Artikulua. (Edukirik gabe)	20
20. Artikulua. (Edukirik gabe)	20
20 Bis artikulua. (Edukirik gabe)	20
V. ATALA. OPORRAK (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	21
21. Artikulua. Iraupena	21
22. Artikulua. Banaketa	21
VI. ATALA. SAILKAPENA, SUSTAPEN PROFESIONALA ETA LEKUALDAKETAK (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	21
23. Artikulua. Lanbide-sailkapena	21
24. Artikulua. Lanbide-taldeak	21
25. Artikulua. Balorzio estrukturala	22
26. Artikulua. Baloraziorako eskumenak	22
27. Artikulua. Erreklamazioak	22
28. Artikulua. Sustapen profesionala	22
29. Artikulua. Lantokiz aldatzea	23
VII. ATALA. SOZIETATE-KONTRATUAK	23
30. Artikulua. Lan-bazkideen sozietate-kontratuak	23
31. Artikulua. Kooperatibaren sozietate-kontratuak eta elkartzeko kontratuak	23
VIII. ATALA. GREBAREN ERREGULAZIOA (ESTATUTUETAKO 32. ARTIKULUA)	24
32. Artikulua. Arrazoiak	24
33. Artikulua. Gutxieneko zerbitzuak mantentzea	24

IX. ATALA. DIZIPLINA-ERREGIMENA	24
34. Artikulua. Diziplina-arauak. Hutsegite sozietarioak/lanekoak (estatutuetao 25. Artikulua).	24
35. Artikulua. Hutsegite sozietarioen eta lanekoan sailkapena (estatutuetao 26. Artikulua)	24
36. Artikulua. Hutsegite sozietario eta lanekoengatiko zehapenak (estatutuetao 27. Artikulua)	28
37. Artikulua. (Edukirik gabe)	29
38. Artikulua. Kanporatzea (estatutuetao 29. Artikulua).	29
III. KAPITULUA. LANGABEZIA	30
39. Artikulua. Kooperatiben arteko solidaritatea	30
40. Artikulua. Definizioa	30
41. Artikulua. Prestazioa	30
II. TITULUA. EKONOMIA-ARAUBIDEA	31
I. KAPITULUA. BAZKIDEEN KAPITALERAKO EKARPENA	31
42. Artikulua. Bazkide berrientzako kapital sozialerako nahitaezko ekarpenak (estatutuetao 36. Artikulua)	31
43. Artikulua. Lan-bazkide berriak sartzeko kuotak (estatutuetao 41. Artikulua)	31
44. Artikulua. Ekarpn sozialen interesak (estatutuetao 39. Artikulua)	31
44 Bis artikulua. Ekarpn sozialen interesen monetarizazioa.	32
45. Artikulua. Erretornuak eta estornuak (estatutuetao 45. Eta 46. Artikulua)	33
46. Artikulua. Ekarpn eguneratzea (estatutuetao 47. Artikulua)	33
47. Artikulua. Kapital sozialari egin beharreko transferentziak bazkideen artean (estatutuetao 35. Eta 40. Artikulua)	33
48. Artikulua. Kapital sozialaren nahitaezko zabaltzeak.	33
49. Artikulua. Kapitalerako ekarpenaren itzulketa, baja-kasuetan (estatutuetao 23. Artikulua)	34
II. KAPITULUA. KOOPERATIBAKO HEZKUNTZA ETA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO NAHITAEZKO EKARPENA (IPHNE) (ESTATUTUETAKO 38. ARTIKULUA)	35
50. Artikulua. Iphne xedapen orokorrak	35
51. Artikulua. Indargabetua.	35
52. Artikulua. Indargabetua.	35
53. Artikulua. Eskaerak eta baldintzak	35
54. Artikulua. Indargabetua.	35
III. TITULUA. ORDEZKARITZA- ETA INFORMAZIO-ORGANOENA	36
I. KAPITULUA. DELEGATUEN BATZAR NAGUSIEN ARAUBIDEA	36
55. Artikulua. Delegatuen batzar nagusiaren saioak (estatutuetao 49. Artikulua)	36
56. Artikulua. Batzarraren garapena (estatutuetao 52. Artikulua)	36
57. Artikulua. Arazoak ebazteko moduak (estatutuetao 52. Artikulua)	36
58. Artikulua. Ordezkaritza-eskubidea (estatutuetao 52. Artikulua)	36
59. Artikulua. Bileraren akta onestea eta betearaztea (estatutuetao 52. Artikulua)	37
II. KAPITULUA. PRESTAMEN-BATZARRAK (ESTATUTUETAKO 54. ARTIKULUA)	38
60. Artikulua. Izaera	38
61. Artikulua. Lan-bazkideek batzar nagusirako delegatuak izendatzea	38
62. Artikulua. Lan-bazkide kontsumitzaileek batzar nagusirako delegatuak izendatzea.	38
63. Artikulua. Batzar nagusiko delegatuen agintaldiaren iraupena eta betebeharra.	39
64. Artikulua. Boto-eskubidea baliatzea	39

III. KAPITULUA. KONTSEILU ERREKTOREA, JAGOLETZA-BATZORDEA ETA ERREKURTZO-BATZORDEA BERRITZEKO PROZEDURA (ESTATUTUETAKO 74. ARTIKULUA)	40
65. Artikulua. HAUTAGAITZEN PROPOSAMENAK	40
66. Artikulua. Bozketak eta hautaketa	41
IV. KAPITULUA. KONTSEILU KONTSUMERISTA (ESTATUTUETAKO 61. ARTIKULUA)	42
67. Artikulua. Kontzeptua	42
68. Artikulua. Ahalmenak	42
69. Artikulua. Osaera eta antolamendua	42
70. Artikulua. Batzorde delegatu iraunkorra	42
V. KAPITULUA. BATZORDE KONTSUMERISTA LOKALA (ESTATUTUETAKO 33. ETA 62. ARTIKULUA)	43
71. Artikulua. Kontzeptua	43
72. Artikulua. Ahalmenak	43
73. Artikulua. Helburuak	43
74. Artikulua. Eraketa eta osaera	43
75. Artikulua. Antolamendua	44
VI. KAPITULUA. INDARGABETUA	44
76. Artikulua. Indargabetua	44
VII. KAPITULUA. KONTSEILU SOZIALA (ESTATUTUETAKO 59. ARTIKULUA)	45
77. Artikulua. Kontzeptua	45
78. Artikulua. Ahalmenak	45
79. Artikulua. Osaera	45
80. Artikulua. Batzordekideen hautaketa	45
81. Artikulua. Agintaldia eta aginte-uztea	46
82. Artikulua. Karguak hautatzea	46
83. Artikulua. Funtzionamendua	46
84. Artikulua. Kontseilu sozialeko batzorde delegatuak	46
VIII. KAPITULUA. SEGURTASUN- ETA OSASUN-BATZORDEA	47
85. Artikulua. Kontzeptua	47
86. Artikulua. Osaera	47
87. Artikulua. Ahalmenak	47
88. Artikulua. Kooperatibaren betebeharrak	47
89. Artikulua. Bazkideen betebeharrak	48
IX. KAPITULUA. ZUZENDARITZA-KONTSEILUA (ESTATUTUETAKO 65. ARTIKULUA)	49
90. Artikulua. Kontzeptua	49
91. Artikulua. Osaera	49
92. Artikulua. Funtzionamendua	49
X. KAPITULUA. KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIO ERREGULATZAILEA	50
93. Artikulua. Gainegiturako erakundeetan parte hartzea	50
94. Artikulua. Kontseilu errektorearen ordezkariak	50
1. Xedapen gehigarria	50
2. Xedapen gehigarria	50

ARAUDIAREN EDUKIA HOBETO ULERTU AHAL IZATEKO ARGIBIDEREN BAT BEHAR DUTEN TERMINOEN ETA ESAPIDEEN HAUTAPENA

Aurrerakin konputagarria

Lan-bazkideen kasuan Emaizten ehunekoa aplikatzeko hartzen den zenbatekoa da, eta honako faktore hauen batura izan daiteke:

- a) Lan-aurrerakina.
- b) Amatasunagatiko prestazioa.
- c) Aldi Baterako Ezintasunagatiko prestazioa lan-istripuen kasuetan.
- d) Aldi Baterako Ezintasunagatiko prestazioa gaixotasunen kasuetan.

ABEren kontsumo errearen ehunekoa, urterako aurreikusitakoari dagokionez –Lagun Arok prestazio hori kalkulatzeko erabiltzen duen sisteman oinarrituz– 100 baino txikiagoa edo berdina bada, lau faktoreak batu egingo dira; aldiz, zifra hori baino handiagoa bada, lehenengo hirurak bakarrik konputatuko dira.

Lan-aurrerakina

Kooperatibak ekitaldian ustez izango dituen emaitza ekonomikoen kontura lan-bazkide bakoitzari aurreratzen zaion zenbatekoa. Lan-aurrerakinaren baitan sartzen dira Zuzkidura-aurrerakina eta Kontsumo-aurrerakina.

Zuzkidura-aurrerakina.

Gizarte-segurantzaren sistema estaltzeko eta Autonomoen Mutualitatearen kuota ordaintzeko erabiltzen den Lan-aurrerakinaren zati bat da.

Kontsumo-aurrerakina.

Berak nahi bezala erabiltzeko bazkideari dagokion lan-aurrerakinaren zati bat da eta, hala badagokio, zerga-atxikipena aplikatzen zaio, baita solidaritate-funtsaren kuota gisa egiten den ekarpena ere.

Harpidetutako ekarpena

Bazkideak Kapital Sozialaren kontuan jarriko duela hitzemandako zenbatekoa.

Egindako ekarpena

Bazkideak Eroski S. Coop.eko Kapital Sozialari egin dion ekarpenaren zenbatekoa. Araudi honetan Ekarpenean aipatzen denean, egindako ekarpenaz ariko gara.

Lan-bazkide izateko hautagaia

Eroski S.Coop.eko langilea probaldian.

Gutxieneko Nahitaezko Kapitala

Gizarte-eskubideak lortzeko bazkideek jarri beharreko Kapitala da.

Kontsumerismoa

Bere erabakietan kontzienteagoa eta kritikoagoa den kontsumitzailea lortzera, merkatuan kontsumitzailearen aldeko indar-oreka handiagoa berrezartzera eta, oro

har, kontsumitzailearen eskubideak defendatzera eta babestera bideratutako joera edo ekintza da kontsumerismoa.

Kalifikatzaile gisa erabilia (adibidez, batzorde kontsumerista, ekintza kontsumerista, etab.) kalifikatutako kontzeptuaren xedea definitzen du.

Sarrerako kuota

Lan-bazkide izateko hautagaiak bazkide-izaera lortzeko Eroski S.Coop.eko Erreserba Funtsera egin behar duen ekarpena.

Zuzendaritza

Araudi honetan bi modutan erabili da terminoa: batetik, modu zehatzean (Zuzendaritza Nagusia, Kontsumo Zuzendaritza, Zentroko Zuzendaritza, etab.) eta, bestetik, modu orokorrean (Zuzendaritza). Bigarren modu horretan erabiltzen denean, "Aginte-katearen" sinonimo gisa ulertuko da, eta, horren ondorioz, erabakitzeko ahalmenak eskuordetuta dituen erakundearen hierarkia-estamentuari dagozkio kasuan kasuko eskumenak edota erantzukizunak.

Ekitaldi ekonomikoa

Kooperatibaren jarduera ekonomikoa jasotzen duen hamabi hilabeteko aldiari aplikatzen zaion terminoa, otsailaren 1ean hasi eta hurrengo urteko urtarrilaren 31n bukatzen dena.

Lanaldia

Urteko lanorduen kopurua, oportrei dagozkien orduak gehituta, urtero Lan Arauetan definitutako dena. Besterik adierazten ez denean, Lanaldi Osoaz edo Kooperatiban ohikoena denaz ariko da, urte osoko orduak osatzen dutena.

Lanaldia (motak)

Kooperatibak hiru lanaldi-mota ditu bazkideek ekitaldian lan egin beharreko ordu-kopuruaren arabera:

Lanaldi osoa.

Kooperatibako ohikoena da eta urteko Lan Arauetan ordu-kopuru handiena hartzen duena.

Lanaldi murriztua

Astean hogeita hamar orduetik gora egiten ez dituen eta horren urteko baliokidea, baina lanaldi osotzat jotzen denaren erdia baino handiagoa.

Lanaldi-erdia.

gutxi gorabehera, lanaldi osotzat jotzen denaren ordu-kopuruaren erdia hartzen duena.

Gehiengoak

Gehiengo erlatiboa

Aurkeztutakoan artean boto gehien jaso dituen aukera.

Gehiengo sinplea

Emandako botoen artean ("bertaratutakoek eta ordezkatuak" edo "bertaratutakoek", kasuen arabera) aurkakoak baino aldeko boto gehiago dituenak.

Berdinketa izaten denean, kalitateko botora jotzen da gehiengo sinplea lortzeko. Horrelakoetan Lehendakaritzak erabakitzen du kalitateko botoaren bitartez, bere iritziko bi botoen balioa hartzen duelako.

Gehiengo sinplean, jakineko tesi baten (bi baino gehiago badaude ere) aldeko botoek beste aukerak(ek) lortutakoan kopurua gainditzea da kontua.

Gehiengo indartua

Gehiengo sinplea baino handiagoa den beste edozein gehiengo.

Bi herenen gehiengoa

Gehiengo indartuaren adibide bat da. Botoen bi herenei dagokiena, gehiengo sinplean azaldutako arau berdinen arabera zenbatzen dena.

Ahaidetasuna (mailak)

Araudi honetan hainbat ahaidetasun-maila bereizten dira: Taulak honek eredu bidez azaltzen ditu legez kontuan hartutako ahaidetasun-harremanak:

Odol-ahaidetasuna

Lehenengo maila: aita, ama, seme-alabak.

Bigarren maila: anai-arrebak, aitona-amonak, bilobak.

Hirugarren maila: Osaba-izebak, ilobak.

Ezkontza-ahaidetasuna:

Lehenengo maila: aitagarreba/amaginarreba, suhia, erraina.

Bigarren maila: koinatua/koinata, ezkontidearen aitona-amonak, ezkontidearen bilobak.

Hirugarren maila: ezkontidearen osaba-izebak, ilobak.

Zuzenbidezko eta Izatezko Bikoteen arteko erabateko parekidetasuna

Ondore soziolaboretarako, zuzenbidezko bikoteentzako ezarritako araudia izatezko bikoteetara ere hedatzea ezarri da; beraz, izatezko bikotea ezkontzaren parekidetzat joko da eta bizikidea ezkontidearen parekidetzat Eroski S.Coop.en barne-araudi osoan.

Bazkidea

Hauk izan daitezke Eroski S.Coop.eko bazkide:

a) Jarduteko behar adina gaitasun izanik, beraien zein familiakoan kontsumorako ondasunak eta zerbitzuak kalitate, neurri, aukera, informazio eta preziorik onenean eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoak.

Ondore guztietarako, familiakotzat hartuko dira ahaidetasunezko, mendekotasunezko edota horretarako baliozkoa eta behar adinakoa den beste loturaren bat izanik, etxe berean edo elkarrekin komunitate bakarrean bizi diren pertsona guztiak.

b) Eroski S.Coop.eko langileak, lan-bazkide gisa.

Estatutuek eta Araudiak bazkideari eta delegatuari buruz egiten dituzten aipamenak bazkideari eta delegatuari egindakotzat joko dira, kasuaren arabera.

ONARRIZKO PRINTZIOAK

Kontsumitzailearen duintasuna

Kontsumoko kooperatibismoa sorrarazi zuten printzipioekin koherentea izanik, eta haiekiko leialtasunez, Eroski S.Coop. kontsumitzaile-elkarteak lan-bazkidearen partaidekide bihurtzen duen esanahi berezia aitortzen dio kontsumitzaileari, kooperatiba gisa dagokion rol soziala eratzeko; errektore gisa, praktikan kontsumitzaileen eskubideak defendatzera zuzenduta dagoen jakineko merkataritza- eta zerbitzu-egitura gauzatzearen bermatzailea da. Horregatik, Eroski S.Coop.ek, Kontsumitzaileen Elkarte gisa, kontsumitzaileen benetako interesak hobeto sustatu eta defendatzeko behar diren jarduerak garatuko ditu, eta, bereziki, kontsumitzaile horiei buruzko informazioa eta horien prestakuntza. Gainera, ingurunearekiko solidaritatearen eta konpromisoaren inguruko jarduketak sustatuko ditu.

Lanaren duintasuna

Eroski Kooperatiba Sozietate gisa eratu izana bazkideen asmoaren ondorioa da, hau da, giza lanak izan ditzala bere duintasunari dagozkion pribilegioak, antolatutako ekonomia-jarduera orotan esku hartzen duten gainerako elementuen egitura-mendekotasunaren bitartez.

Autokudeaketa

Autokudeaketa-printzipioa Eroski S.Coop.eko bazkideen oinarrizko berdintasunean dago oinarrituta. Berdintasun hori funtzionamendu demokratiko baten ustezko abiapuntua da, eta giza duintasunaren arabera dago ezarrita. Bestalde, kolektibo gisa duen protagonismoa bultzatzen da, bai gure erakundearen sozietate-erregimenean eta bai bere enpresa-kudeaketan.

Eroski S.Coop.ekin sozietate-kontratu baten bitartez lotutako lan-bazkideei dagokienez, aipaturiko printzipioa aplikatzeak euren lanpostuei dagozkien funtzioak eta erantzukizunak pixkanaka-pixkanaka eta jakinaren gainean onartzea esan nahi du, kontsumitzaileak zerbitzatzeko eta beren eskubideak defendatzen laguntzeko.

Kapitalaren funtzioa

Metatutako lan-soberakina da kapitala; egungo jarduera behar bezala antolatuz bideratzen da, eta beharrezkoa da gure erakundearen etorkizuneko garapen harmonikoa bermatzeko.

Izaera horrekin bat etorritik, haren prestazioak ordainsari mugatua mereziko du, haren metaketak eragindako iraganeko eta oraingo sakrifizioen konpentsazio orekatuan, eta ezin zaio kooperatibaren subiranotasunaren erabilera esleitu, lanaren atributu eskusiboa delako.

Solidaritatea

Batzuek eta besteek Kooperatibaren helburu soziala garatzeko eta lortzeko duten premia aldarrikatzen dute Eroski S.Coop.eko bazkideek, horrek ekarriko liekeen aberastasunaren jakitun eta elkarren arteko lankidetzaren ondorioz izango litzuketan mugak gogo onez onartuz.

Antolamendua

Talde-lana garatzeak antolamendu egokia eskatzen du eta, horretarako, agintaritza behar da, xede horrekin aukeratutako bazkideek gauzatuko dutena.

Bazkide horiek euren laguntzaileen diziplinazko men egitea merezi dute eta, aldi berean, kudeaketa eraginkorra eskaintzeko ahalegina egingo dute, inguruabar aldakorretara egokitzeko prozesu dinamiko batean.

Garapen komunitarioari laguntza

Lehen aipaturiko printzipio kontsumeristen eta solidarioen adierazpen praktiko gisa, kontsumitzaileei zerbitzua emateko eta produkzio- eta eraldaketa-prozesuak kontsumitzailearen ezagutzara, kontrolera eta esku-hartzera hurbiltzeko borondatea berritu du Eroski S.Coop.ek. Helburu horrek eragin zuen Kooperatiba eratzea, eta zentzua ematen dio banaketa-jarduerari.

Eroski S.Coop.ek, bestalde, ezarrita dagoen lurraldeen erabateko garapenean laguntzeko erantzukizuna hartu du bere gain.

Aplikazio-eremua

Kooperatibaren eta bigarren edo beheagoko mailako kooperatiben arteko erlazio juridikoen, eta berebat aurreikuspen-mutua eta bere elkarkide dituen edo etorkizunean balio osoz onartutako hitzarmen bitartez elkarkide izango dituen gainegiturako edo lankidetzako erakundeen arteko erlazio juridikoen oinarrizko erregulazioa era honetan egingo da:

- a) Oro har, Kooperatibak entitate horietan izango dituen eskubide eta betebeharren edukia eta horien egikaritza eta betetzea haien Estatutu edo arauen arabera gobernatuko dira, alderdiek libreki hitzartutako itunen arabera eta aplikatzekoak diren lege-xedapenen arabera.
- b) Aipatutako entitateei dagozkien organoetatik eratorritako arauak eta erabakiak, kideentzat edukia dutenean, Kooperatiban aplikatuko dira, barne-zuzenbidekoak balira bezala.

LAN-BAZKIDEEN OINARRIZKO 10 BALIOAK KOOPERATIBAN

Partaidetza

Partaidetzaren balioak honako funtsezko alderdiak biltzen ditu:

- Bazkideen gaitasun guztien ekarpena euren ingurune hurbilenean (partaidetza kudeaketan eta helburuetan).
- Partaidetza Kooperatibaren Kapital Sozialean eta emaitzetan.
- Organo sozialen bidezko esku-hartzea Kooperatibaren bizitza sozioenpresarialean.

Aipaturiko azken bi alderdiak kooperatiboak eta desberdinak dira zalantzarik gabe, enpresa ez-kooperatiboen munduan dauden beste partaidetza-forma batzuk baino sakonagoak. Lehenengoa hurrengo biek in konbinatzeak kooperatibaren bizitzako oinarrizko balioetako bat eta enpresa-arrakastarako potentzial handienetako bat bihurtzen du partaidetza.

Garapen pertsonala eta profesionala

Balio horrek lan-bazkideen ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hobetzea eskatzen du sozietate- eta lanbide-alderdietan, hobekuntza ekonomikoak izateko, gizarteko karguak edo lan profesionalak behar den bezala betetzeko eta gizaki gisa aurrera egiteko aukera emango dietenak.

Pertenentzia-sentimendua

Pertenentzia egitatea da. Kooperatiba bazkideena da, eta bazkideek osatzen dute Kooperatiba, atxikita dauden borondatezko esparru gisa. Pertenentzia-sentimendua, ordea, subjektiboa da eta norbanakoaren identifikazio-ahalmena, proiektuan konfiantza izateko ahalmena eta kooperatibaren jabe sentitzeko ahalmena adierazten ditu. Kooperatibak irudikatzen duenagatik gogobetetasun-sentimendua biltzen du kanpoaldean, eta hobetu daitekeen guztiagatik inkonformismoa barrualdean.

Balio garrantzitsua da, beste balio pertsonal eta kolektibo batzuen katalizatzaile edo azeleratzaile moduan aritzen dena eta, aldi berean, balio horien bizipen-mailak eragiten diona. Ez dirudi bere gainean zuzenean eragin daitekeenik, beste balio batzuentzako ekintza baliagarrien bitartez baizik.

Informazioa – Komunikazioa

Atal berean sartzeko dira kudeaketa-informazioa, izaera orokorrekoa eta instituzionalekoa eta sozietateko informazioa.

Kooperatiban oso garrantzitsua da lan-bazkideentzako eta entitate berarentzako informazio-malla onak izatea ezarritako barne-komunikazio prozesuen bitartez. Hemen sartzeko dira goranzko eta beheranzko informazioa eta bazkideek egiten dituzten ekarpenen, iradokizunen eta ideien bilketa. Oso garrantzitsua da informazioa kanalizatzea entitatearen eraginkorra izan dadin egitura funtzionalaren bitartez edo organo sozialen bitartez, komunikazio-motaren arabera, hau da, kudeaketakoa edo sozietatekoa.

Kolektiboaren lehentasuna indibidualtasunaren gainetik. Barne-solidaritatea

Honako gai hauek jorratzen ditu: lankidetzaz sustatzea, premia kolektiboak estaltzeko elkarri laguntzea eta kolektiborako onena dena bultzatzea, kasuren batean norbanakoak epe laburrean hainbat gauzari uko egitea esan nahi badu ere. Ildo horretatik, balio horrekin koherenteak dira aurrezpena eta inbertsioa gastuaren aurrean, epe luzea epe laburraren aurrean eta gehiengoaren erabakiak norberaren erabaki gisa onartzea.

Dinamismoa. Aldaketara egokitzea

Dinamismoaren balioa honela defini daitezke: lan-bazkideek eta erakunde osoak jarduteko ohituretan aldaketarako eta berrikuntzarako duten jarrera. Ekimenari eusteko eta aukeratutako jarduera-sektoreetan edo negozioetan muturreko enpresa izateko premia da, definitutako gainerako balioak beteko direla bermatzeko modu bakarra dena.

Bezeroarentzako orientazioa

Bezeroaren gogobetetasuna Eroski S.Coop.en oinarritzako orientazioa da. Bezeroak ezagutzea, beren kexei, kezkei eta hobekuntza-proposamenei buruzko informazioa biltzea, beren eskaerei beti erantzuna ematea eta kooperatibaren marka, produktu eta ikurrekiko leialtasuna lortu ahal izateko premiei aurre egitea da.

Kontsumitzaileari buruzko kontzeptuak barne-bezeroari baliagarritasun berarekin aplikatu daitezke. Hornitzailea eta barne-bezeroa Kooperatiba berekoak izateak ez du aldatzen bataren eta bestearen artean egon behar duen zerbitzu-harremanaren alderdi garrantzitsua.

Bizi-kalitatea

Aipaturiko balioak garrantzitsutzat jotzen du lan-baldintza orokorretan maila onak lortzea: egutegiak, segurtasuneko eta arriskuen prebentziorako sistemak, uniformeak, laneko gogobetetasuna, ordainsaria, etab.

Bizi-kalitateari buruzko iritzia beti da subjektiboa. Ingurune hurbilenaren inguruan eta lehenagoko baldintzekin gertatzen dira. Halaber, baldintza objektiboek erlazioan egon behar dute egindako jardueren eskakizunekin eta inguruabar berdinekin dituzten lehiakideen baldintzekin.

Modu horretan, banaketa-jarduera handia izaten da jaiegun-bezperetan, jarduera batzuek amaituta egon behar dute dendak ireki baino lehen eta horrek gauzez lan egitea eskatzen du. Aurreko guztiagatik, bizi-kalitatearen inguruko hobekuntzek bateragarriak izan behar dute lanbidearen ezaugarriekin.

Konpromiso soziala ingurunearekin. Kanpo-solidaritatea

Balio horren esanahiak zerikusia du bere inguruko gizartearen hobetzeko lan-bazkide bakoitzari dagokion erantzukizun-kuota onartzearekin.

Eroski S.Coop. kontsumo-kooperatiba da, eta bere konpromiso soziala horretan oinarrituta dago, hein handi batean. Herritarari itzuli behar zaio kooperatibari emandakoaren zati bat; batetik, kontsumoaren jarduera eta jarduera horrek osasunean eta ingurumenean duen eragina hobetuta eta, bestetik, kooperatibaren nortasunarekin gehien identifikatutako ekimen sozialak babestuta.

Enpresek erantzukizun-maila handia dute ingurunean gertatzen diren gauzetan. Jasotzen denarekin alderatuta, ematen denaren balantzea hobetu egin behar da. Enplegua eta aberastasuna sortzea, lurralde bakoitzeko premia handienekin identifikatzea eta premia horiek asetzeko laguntzea funtsezkoak dira enpresa arduratsu batean.

Profesionalizazioa

Profesionalizazioa, balio gisa hartuta, lan-bazkide bakoitza bere lanbidea edo funtzioa onenen maila baliokidearekin egiteko gai izatea da. Erakundeak, oro har, prozesu eta eragiketa guztietan lehiakortasun-maila handia lortzea ere esan nahi du.

Norbanakoen balioen artean aipatutako garapen pertsonal eta profesionalaren inguruko balioa da hori. Kasu horretan are eta nabarmenagoa da enpresa- eta lehia-alderdia.

I. TITULUA: BAZKIDEENA

I. Kapituluua.

ALTAK ETA BAJAK

1. artikulua. Bazkideak onartzeko eskakizunak (Estatutuetako 11. artikulua)

Bat. Bazkideak onartzea Kontseilu Errektoreari dagokio. Kontseilu Errektoreak hartu behar du planteatutako eskaerei buruzko erabakia.

Bi. Bazkide-izaera hartzeko probaldia gainditu behar da eta, lan-bazkideen kasuan, konpromiso sozioekonomikoak bete eta nahitaezko formalitateak egin behar dira.

2. artikulua. Onartzeko formaltasunak (Estatutuetako 11., 12., 13. eta 14. artikulua)

Bat. Lan-bazkide izateko aukeratutako hautagaiak honako dokumentu hauek aurkeztu behar ditu Kooperatiban sartzeko:

- Probaldia gainditu eta ezarritako konpromiso ekonomikoak bete behar dituen Sozietate Kontratua. Lanaldi partzialeko lan-bazkideen ekarpenen ordainketa lanaldi osoko bazkideen berdintasun-baldintzetan egin ahal izango da.
- Alta Langile Autonomoen Mutualitatean eta Lagun Aro Mutuan. Sail Sozialak eskatutako dokumentazio administratiboa.

Bi. Bazkide kontsumitzaile gisa sartzeko beharrezkoa izango da:

- Eskaera-orria betetzea.
- Ezarritako baldintza ekonomikoak betetzea.

3. artikulua. Probaldia (Estatutuetako 11. eta 30. artikulua)

Bat. Lan-bazkide izateko hautagaiak probaldia gainditu beharko du. Probaldiaren iraupena baldintzen Sozietate Kontratuan ezarritakoa izango da. Probaldian, Kooperatibak eta bazkide izateko hautagaiak alde bakarreko erabakiaren bitartez eten dezakete euren arteko harremana.

Bi. Probaldia gainditzeko honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Estatutu-arauak eta barne-arauak onartzea.
- Lanpostuari dagozkion lanbide-prestaketa, erritmoa eta lan-kalitatea.
- Kooperatibaren enpresa-funtzionamendura egokitzea.
- Lantaldean txertatzea. Horretarako, Zuzendaritzak bazkide izateko hautagaiaren lantaldeari kontsulta egingo dio, baldin eta lantaldea eratuta badago.

Hiru. Probaldia gainditzeari buruzko erabakia hartzeko, Zuzendaritzak egindako txostena hartuko da kontuan.

4. artikulua. Bazkidearen baja (Estatutuetako 22. artikulua)

Bat. Edozein bazkidek eta noiznahi har dezake baja Kooperatiban bere borondatez,

Kontseilu Errektoreari aurrez igorritako idatzizko jakinarazpenaren bitartez, bi hilabeteko aurrerapenarekin 5. eta 6. Talde profesionaletako lan-bazkideen kasuan eta hiru hilabetekoarekin gainerakoen kasuan.

Bi. Kontseilu Errektoreak, horren inguruan ezartzen den araudiarekin bat, baja hartzen duten bazkideei Kooperatibak haien alde itundu dituen eragiketa aktibo guztiak bertan behera uzteko eska diezaieke, Eroski S.Coop.entzat arrisksutsua den eragiketa hori edozein dela ere: mailegua, kreditua, merkatu-deskontuak edo hirugarren baten aurrean onartutako sinadura-bermeak. Eragiketa aktibo horiek bertan behera uzteko epea ezingo da sei hilabetekoa baino handiagoa izan, eta bazkideak ziurtatu beharko dio Kooperatibari eragiketa aktiboek baja-unean duten likidatzekoa.

Kooperatiban baja hartzen duten bazkideen nahitaezko ekarpenei egindako kenkariak Kooperatibaren nahitaezko erreserba-funtsera joango dira.

Hiru. Kooperatibaren jarduera luzatzeari, bat egiteari edo zatitzeari buruzko, kooperatibaren helburu sozialaren klase-aldaketari edo funtsezko aldaketari buruzko, kapitalari nahitaezko ekarpen gehiago egiteko eskakizunari buruzko erabakiekin edo estatutuetan aurreikusi gabeko kostu handiko betebeharrak edo karga berriak hartzea eragiten duen beste edozein erabakirekin ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du. Baja justifikatuztat joko da erabakia hartu eta berrogei egun baino lehen Kontseilu Errektoreari igorritako idatziaren bitartez, baldin eta kontrako botoa salbatu badu edo bozketaldian egon ez bazen. Eraldaketaren kasuan, Estatutu Sozialen 77 Bis artikuluan aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

Lau. Arrazoitu gabeko borondatezko bajatzat hartuko dira, aldiz, honako hauek:

- Aurreabisuko epea ez betetzea.
- Lan-bazkideek konkurrentziako ekintzetan jarduteko egindako bajak.
- Lan-bazkideek baja hartzea ordezkoei ezagutza behar bezala transmititu gabe, edo bere prestakuntzan gastatutako dirua amortizatzekeo nahiko denbora pasatu ez denean edo Kontseilu Errektorearen ustez bestelako kalteak eragin dituenean.

Bost. Kontseilu Errektoreak hartutako kalifikazioari eta borondatezko bajaren ondorioei buruzko erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak aurkaratu ahal izango du Errekurtso Batzordearen aurrean, Estatutu hauen 29. artikulua aurreikusitako baldintza eta epeetan.

5. artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak

Kontseilu Errektoreak ezarriko du Batzar Nagusiak itzultzea adostutako ekarpen-ordainketarako epea, ekitate-irizpideen arabera, bazkidearen adina, heriotza edo ezintasuna kontuan hartuta, besteak beste. Ordainketa-epea ezingo da izan bost urtetik gorakoa, Batzar Nagusiaren itzulketa-erabakia hartzen denetik aurrera, bazkidea hiltzen den kasuan izan ezik, kasu horretan urtebetekoa izango baita.

6. artikulua. Nahitaezko baja (Estatutueta 24. artikulua)

Bazkide izateari nahitaez utziko dio Legeak ezarritako baldintzak betetzen ez dituenak edo Kooperatibaren barruan eskatutakoa betetzeari uzten dionak.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du baja, aurrez interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren, ofizioz, edozein bazkidek edo betetzen jarraitzeko baldintzak galdu zituenak hala eskatuta.

Nahitaezko baja arrazoizkotzat hartuko da aipatutako baldintza horiek galtzerakoan bazkideak Kooperatiban dituen betebeharrak ez betetzeko asmorik edo nahitaezko bajaz behar ez bezala baliatzeko asmorik ez dagoenean.

Kontseilu Errektorearen erabakiaren aurka, bazkide ez-diskonformeak errekurtsua jar dezake, eta 38. artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da horretarako.

II. Kapitula.

LAN-BAZKIDEEN LAN-ARAUBIDEA

I. atala. LAN-AURRERAKINAK (Estatutueta 32. artikulua)

7. artikulua. Aurrerakinen kontzeptua eta tartea

Bat. Lan-aurrerakinak aldizka eta noizean behin jasotzen diren diru-kopuruak dira, eta diruzkoak nahiz ez-diruzkoak diren ekarpenekin ordaindu ahal izango dira; edozein kasutan, Kooperatibaren urteko ekitaldi bakoitzeko ekonomia-jardueraren bukaerako emaitzen kontura.

Bi. Kooperatibako lanpostuen lanbide-sailkapena egiteko, kontuan hartuko da lanpostu bakoitzari dagokion maila, eta maila hori balorazio-araudia aplikatuz lortuko da.

8. artikulua. Lan-aurrerakina orduko zehaztea

Bat. Urtero ezarriko da 1. indizearen ordu arruntari dagokion lan-aurrerakina. Zuzkidura-aurrerakinak –Lagun Arotik hartutako arauen arabera ezarriko denak– eta Kontsumo Aurrerakin Gordinak osatuko dute lan-aurrerakina.

Bi. Lan-aurrerakina erabakitzeke orduan kontuan hartuko dira kontsumoko prezioen indizearen eboluzioa, sektoreko eta inguruneke lan-baldintzak eta Kooperatibaren egoera ekonomikoa.

Hiru. Laneko indize bakoitzari dagokion Lan Aurrerakina 1 indizearentzat ezarritakotik kenduko da automatikoki, 1 indizearen balio absolutua laneko indizearekin biderkatuz.

9. artikulua. Koefiziente diferentziala

Koefiziente diferentzial baten aparteko aplikazioak alda dezake aurreko artikuluan definitutako lan-aurrerakinaren balioa. Faktore zuzentzaile hori denboran eta zenbatekoan alda daiteke, eta enpresa-jardueran beharrezkoak diren lanpostuekin edo jarduerekin erlazioatutako balizko egoeretara modu malguan egokitzeko balioke du.

Koefiziente diferentziala aplikatzeari buruzko erabakiak hartzea Kontseilu Errektoreari dagokio, Zuzendaritzaren proposamena eta Kontseilu Sozialaren txostena jaso eta gero.

10. artikulua. Lan-aurrerakinen gaineko fiskalitatea

Lan-aurrerakinetatik eratorritako betebeharrak fiskalak lan-bazkidearen kontura eta kargura izango dira.

11. artikulua. Ordu berezien ordainketa

Bat. Araudi honetako 8. artikuluan ezarritako lan-aurrerakinaren oinarriari jakineko ordu batzuen ordainketa gehituko zaio, honako ehuneko hauekin:

- a) % 25 gaueko ordui. Gaueko ordutzat joko dira gaueko 10:00etatik goizeko 6:00etara bitartekoak. Ordu-tarte horren barruan ez da gaueko gisa ordainduko zentro bat itxtearen ondorengo orduari edo zatikiari dagokiona eguneko lanaldiaren jarraipeneko edo amaierakoa denean.

- b) % 55 larunbat arratsaldeko ordui, 15:00etatik aurrera eta asteko lanaldia larunbateko 22:00ak arte edo, egun horretako lanaldiaren amaiera bada, beranduagora arte luzatzen duten bazkideek egindakoei.
- c) % 100 jaiegunetako ordui. Jaiegunetako ordutzat joko dira bezperako 24:00etatik igandeko edo jaieguneko 24:00etara bitartekoak.

Bi. Aurreko puntuan aipatutako konpentsazioak ez dira aplikatuko lanpostuaren balorazio estrukturalarekin bat datozen baldintzak dituzten lanpostuetan, edo, lanpostuaren espezifikotasunagatik, kontratazioan bertan aurrez ikusita zeudenean.

Hiru. “Bat” apartatuan definitutako baldintzetako batzuk aldi berean existituko balira, haiei dagozkien ehuneko guztiak ordainduko dira. Larunbat arratsaldea ez da jaieguntzat jotzen.

12. artikulua. Lan-aurrerakinen ordainketa

Bat. Lan-aurrerakina lan egindako orduengatik soilik ordainduko da, Lan Arauetan ezarritako urteko kontaktaren arabera eta Araudi honetako 18. artikuluan jasotako salbuespenekin.

Bi. Sortutako Lan Aurrerakinen ordainketa hileroko egingo da eta mugaeguneratutako aldien arabera.

12. artikulua. Bis. Solidaritate-funtsa

Bat. Estatutuen 47. bis artikuluan aurreikusitako Solidaritate Funtsa Kontseilu Errektoreak proposatuta hura ordeztzen duen fundazio batek edo erakunde batek kudeatuko du.

Kooperatibak bere lan-bazkideen izenean ordainduko dizkio Fundazioari Solidaritate Funtsari egindako ekarpenak, “Solidaritate Funtsaren Kuota” kontzeptuarekin.

Kooperatibako Kontseilu Errektoreari dagokio ekarpenaren % zehatza urtero ezartzea, beharren aurreikuspenaren arabera.

Bi. Kontseilu Errektoreak urtero egingo du Batzar Nagusiaren aurrean Solidaritate Funtsari egindako ekarpenei eta haren aplikazioei buruzko deskargua.

Hiru. Kontseilu Errektoreak Solidaritate Funtsaren funtzionamendua zehazten duen garapen-araudia erabakiko du, dagokion guztian.

Lau. Lan-bazkide izateko hautagaiak probaldian zehar ez dio ekarpenik egingo Solidaritate Funtsari.

II. atala. APARTEKO ORDAINSARIAK ETA GAINERAKO ORDAINSARIAK (Estatutuetao 32. artikulua)

13. artikulua. Aparteko ordainsariak

Bat. Kontseilu Errektoreak urtero onetsitako Lan Arauetan definituko dira aparteko ordainsarien zenbatekoa eta zenbat izango diren ere. Zenbatekoz hileko kontsumo-aurrerakinari dagozkionak izango dira.

Aparteko ordainsari horiek urteko ordainsariaren batugai bat gehiago gisa hartuko dira, eta, beraz, horrek gorantz edo beherantz egiten duen edozein aldatetak kontrako zentzuan eragingo dio hileko aurrerakin arruntari.

Bi. Jardunean dauden lan-bazkide guztiak izango dute aparteko ordainsari horiek jasotzeko eskubidea.

Hiru. Kooperatiban sartu berri diren bazkideek eta uzten dutenek ere aparteko ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute, baina horien zenbatekoa lan-bazkide bakoitza aktibo egon den hilabeteekiko proportzionala izango da, aurreko aparteko ordainsaria jaso zuenetik iragandako epean.

III. atala. LANALDIA (Estatutuetao 32. artikulua)

14. artikulua. Lan-denbora

Lan-denbora arrunta, urte osokoa zenbatuta, urtero ezarriko da eta Kooperatibak ezarritako Lan Arauetan jasoko da.

15. artikulua. Banaketa

Bat. Urteko lan-denbora hilabeteetan eta asteko egunetan banatuko da, urte bakoitzeko Lan Arauetan gaiari buruz ezartzen denarekin bat etorritik. Banaketa horren arabera asteko egun batean lanera joan beharrik ez izateak ez du esan nahi jaieguna denik lan-arabide honetako beste kontzeptu batzuk aplikatzeko orduan.

Bi.

- a) Urteko orduen zenbaketa erabaki ondoren eta lan-bazkideei kontsulta egin ondoren, Zuzendaritzaren eskumena izango da lan-egutegia ezartzea, herri eta lantoki bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.
- b) Halaber, Zuzendaritzaren eskumena izango da lanaldi arruntak, intentsiboak, txandakakoak eta berreskuratzekoak erabakitzea eta baita lanaldi horiei dagozkien ordutegiak ere, zentroko lan-bazkideei kontsulta egin aurretik. Ordutegiak bazkideari jakinaraziko zaizkio, gutxienez, hilabete lehenago.
- c) Lanaldia ezingo da egunean behin baino gehiagotan banatu.

Lanaldi partzialak egunean bost ordutik gorakoak badira soilik banatu ahal izango dira.

Hiru. Aginte arduradunaren iritziz, salbuespenezko kasuetan –ezustekoak, halabeharrezkoak eta eguneroko zereginetatik kanpo– aurreikusitakoa baino ordutegi handiagoa edo desberdina ezartzeko ahalmena izango du, lantaldeak dituen aukerak kontuan hartuta.

Edozein kasutan, izaera horrekin lan egindako aparteko orduak denbora librearekin konpentsatuko dira beti. Bazkidearekin adostuko da noiz hartuko diren, betiere lantokiko beste bazkide batzuei eta lantokiaren antolamenduari kalterik egin gabe.

Lau. Lanaldi ez-osoko lan-bazkideek lehentasuna izango dute lanaldia osatu eta/edo gehitzeko, aldi batean edo behin betiko, sor litezkeen plantillako beharrian berriak direla-eta, edota eszedentziak, desgaitasunak, etab. estaltzeko. Aginteari dagokio erabakia hartzea, ordu-diferentzia diruz konpentsatuz.

16. artikulua. Laneko puntualtasuna eta presentzia

Laneko puntualtasuna eta presentzia araudi baten bitartez erregulatu ahal izango dira; arau-haustek seinalatzeaz gainera, lan-bazkideei ondorengo puntu hauek betetzeko betebeharra ezarriko zaie:

- a) Lanaldia hasteko ezarritako orduan lanpostuan egotea.
- b) Lanaldia bukatzeko ezarritako ordua baino lehen lana eta lanpostua ez uztea.
- c) Lanaldi-mota desberdinetarako ezarritako lana uzteko gehieneko epea errespetatzea.

17. artikulua. Lanaldi arruntetik kanpoko orduak

Bat. Lanaldi arruntaz kanpoko ordutzat joko dira egiten den lanaldi-motan hileko lanegunei esleitutako ordu-kopuru arruntak gainditzen dituztenak.

Bi. Ordutegi arruntetik kanpoko edozein lanek pertsonari eragiten dion kaltea kontuan hartuta, lanaldiz kanpoko orduak denbora libreko beste batzuekin konpentsatuko dira.

IV. atala. BAIMENAK ETA ESZEDENTZIA (Estatutueta 32. artikulua)

Bazkideen baimenei eta eszedentziei buruzko alderdiak Kontseilu Errektoreak onetsitako araudien bidez ezarriko dira.

18. artikulua. (edukirik gabe)

18 bis artikulua. (edukirik gabe)

19. artikulua. (edukirik gabe)

20. artikulua. (edukirik gabe)

20 bis artikulua. (edukirik gabe)

V. atala. OPORRAK (Estatutuetao 32. artikulua)

21. artikulua. Iraupena

Ordaindutako oporraldien iraupena 31 egun naturalekoa izango da, edo lan-bazkideak ekitaldi ekonomikoan lanean egindako hilabeteen zati proportzionala. Horren ondorioz:

- a) Ekitaldiko lehen egunetik aurrera hasten diren bazkide guztiei ordaindutako oporraldien iraupenaren hamabiren bat kenduko zaie ekitaldi-hasieratik eta hasten den data arte igarotzen den hilabete bakoitzeko.
- b) Oporrak hartu aurretik baja hartzen duen bazkideari ekitaldian lanean aritu den denboraren zati proportzionala ordainduko zaio.
- c) Oporraldi osoa egin ondoren baja hartzen duten bazkideei oporraldietako gehiegizko orduei dagokien kenketa egingo zaie, ekitaldiaren barruan lanean ez aritutako ordaindutako hilabete ko hamabiren bat hain zuzen ere.

22. artikulua. Banaketa

Bat. Enpresa-jarduerak urte osoan etengabe iraun behar duenez, zentro bakoitzeko zuzendaritzak, ahal den neurrian eta bazkideen nahiak betez, eragiketa- eta funtzionaltasun-irizpideak kontuan hartuta, urtero erabakiko ditu lan-egutegian oporrak hartzeko aldiak. Oporrak bi alditan zatitu ahal izango dira gehienez eta bazkidearen borondatez soilik zati txikiagoetan.

Bi. Zentro, sail edo zerbitzu baten inguruan salbuespenezko neurriak hartzea aholkatzen duten halabeharrezko egoerak izaten direnean, Zuzendaritzak erabakitako opor-egutegia alda dezake egoera berrira egokitzeko, aurrez hartutako konpromiso ekonomiko saihetsezinak konpentsatuta.

VI. atala. SAILKAPENA, SUSTAPEN PROFESIONALA ETA LEKUALDAKETAK (Estatutuetao 32. artikulua)

23. artikulua. Lanbide-sailkapena

Bat. Lan-aurrerakinak jasotzeko, betetzen duten lanpostuaren arabera eta Kooperatibari ematen dioten benetako zerbitzuaren arabera sailkatuko dira lan-bazkide guztiak.

Hala ere, ekoizpen-premiekin edo ezohiko egoerekin hala eskatzen dutenean, bazkideek ohiko lana ez den beste bat egiteko betebeharra izango dute, eta gainera arduradunak erabakiko du egoera horiek noiz ematen diren, eragindako pertsonekin kontsultatu eta gero.

Bi. Lanpostuetako sailkapena egiteko erabiliko diren mailak Balorazioa eta Ordainketa egiteko Araudian ezarriko dira.

24. artikulua. Lanbide-taldeak

Kooperatibako lanpostu guztiak honako sei Talde Profesional hauetan sartuko dira.

1. taldea: Zuzendaritza Kontseilua eta Zuzendariak.
2. taldea: Kudeatzaileak.
3. taldea: Aginteak.
4. taldea: Teknikariak.

5. taldea: Arduradunak.
6. taldea: Profesionalak.

25. artikulua. Balorazio estrukturala

Bat. Kooperatibako okupazioen balorazio estrukturala balorazio-araudiaren arabera egingo da. Araudiak ezarriko ditu erabili behar diren ponderazio-irizpideak, balorazioa arautuko duten arau espezifikoak eta ondorengo administrazioa.

Bi. Zuzendaritzak, lanpostuen balorazioa exekutatzeko arduraduna denez, kualifikazio-irizpideak eta behar adinako ordezkaritza funtzionala dituen Batzorde Tekniko baten laguntza bila dezake eginkizun horretarako.

Hala dagokionean, Batzordeak emango du lanpostuen balorazioari buruzko irizpena, balorazio-araudian ezarritakoaren arabera.

26. artikulua. Baloraziorako eskumenak

Bat. Balorazio-araudia onestea edota aldatzea Kontseilu Errektorearen eskumena izango da, Zuzendaritzak proposatuta eta Kontseilu Sozialaren txostenarekin.

Bi. Balorazio-araudiaren aplikazioa, hau da, lanpostuen sailkapena onestea, eta balorazio horren ondoriozko gainerako alderdiak Zuzendaritzaren eskumenak izango dira.

Hiru. Baloratu gabeko lanpostuak edo, euren problematika berezia kontuan hartuta, Sailkapeneko Eskuliburua aplikatu ezin zaienak jakineko maila batean sailkatzea Zuzendaritzaren egitekoa izango da.

27. artikulua. Erreklamazioak

Bat. Lanpostuen lanbide-sailkapenaren ondorioz sortzen diren erreklamazioak hurrengo mailako arduradunari aurkeztu behar zaizkio idatziz. Arduradunak, berak egindako txostenarekin batera, Zuzendaritzara helaraziko ditu adierazitako epeetan.

Bi. Erreklamazioa eta balorazioa eragiten duten desadostasunek jarraitzen badute, Zuzendaritzak erreklamazioari buruzko txostena egingo du eta Kontseilu Sozialaren txostenarekin eta dagokion dokumentazioarekin batera, Kontseilu Errektoreari aurkeztuko dio.

Hiru. Ondore horietarako, eta oro har jakin ahal izateko, lanpostuen lanbide-sailkapena urtean behin jarriko da, gutxienez, lan-bazkideen eskura.

28. artikulua. Sustapen profesionala

Bat. Kooperatibak bere bazkideen maila profesionala igotzea sustatuko du haien gaitasunen arabera, bazkide eta bezeroei eskainitako teknika eta zerbitzuetan etengabeko hobekuntza lortzeko ezinbesteko oinarri gisa.

Bi. Lanpostu berri bat sortzen denean edo lehendik zegoen bat hutsik geratzen denean, lan-bazkideak mailaz igo daitezke ezarritako edozein sistema edo bideren bitartez.

Antolamendu-berregituratzeengatik lanpostu bat amortizatzen denean edo aurki amortizatuko dela aurreikusten denean, eragindako bazkideak lehentasunezko eskubidea izango du gai dela erabakitzen duten lehen lanpostu hutsa betetzeko.

Hiru. Kasu bakoitzean zehaztutako arloetan goragoko kategoria profesional batera igotzea justifikatzen duten ezagutzak hartzea behar diren gaitasun-probak gaindituta egiaztatuko da. Sustapena lanpostuen banaketak edo Kooperatibaren barne-antolaketak aukera ematen duten neurrian izango da posible.

Lau. Nolanahi ere, lanpostu berri bat sortu dela edo lehengo lanpostu bat hutsik dagoela, kanpoan iragarki publikoa egitearekin batera, lan-bazkideei ere iragarriko zaie, xede horretarako ezartzen diren proba edota eskakizunekin Bat.

29. artikulua. Lantokiz aldatzea

Lan-bazkideek lantokia aldatzeko aukera izango dute honako egoera hauetan:

- a) Beste zentro batean lanpostu bat hutsik geratu denean lanpostu berrirako eskatutako baldintzak beteta hura hartzeko aukera dutenean.
- b) Aldi baterako edo behin betiko lekualdutako dituen diziplinazko espedientearen ondorioz.
- c) Halaberharrez eta Kooperatibaren interes handiago bat kontuan hartuta, Kontseilu Errektoreak, Zuzendaritzak proposatuta eta Kontseilu Sozialaren txostenarekin, lan-bazkide bat bere ohiko lantokitik beste batera lekualda dezake, bazkidea denbora mugatu baterako edo behin betiko helbidez aldatzera behartuz. Aurreko eskakizunak eta izapideak ez dira beharrezkoak izango lantokiz aldatzeak bazkidea helbidez aldatzea eragiten ez duenean.
- d) Lekualdaketa herritik kanpora egiten bada, Kooperatibak ezarriko du egoera horrek bazkideari eragindako gastuen konpentsazioa, edo ordezeko kalte-ordaina erabakiko du.

VII. atala. SOZIESTATE-KONTRATUAK

30. artikulua. Lan-bazkideen sozietate-kontratua

Bat. Bazkideak sinatutako sozietate-kontratuak bazkidearen eta Kooperatibaren arteko sozietate-harremanak arautzen ditu. Estatutu Sozialez eta Barne Araudi Kooperatiboaz gain, Kooperatiba kide duten erakundeen estatutuek eta gainerako arau eta erabakiek ere osatzen dute, xede guztietarako aipaturiko sozietate-kontratuari atxikita geratuko direnak. Hori dela-eta, horrelako arauak Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren jakinaren gainean jarri behar dira berehala.

Bi. Sozietate-kontratuak, klausula generikoez gain, bazkide bat edo bazkide-talde bat bere jardueraren edo kontratazioko inguruabar berezien arabera hartzeari eragiten dioten beste klausula espezifiko batzuk ere jaso ditzake zenbait kasutan.

31. artikulua. Kooperatibaren sozietate-kontratuak eta elkartzeko kontratuak

Bat. Batzar Nagusiak hala erabaki duelako, Kooperatibak bigarren mailako Kooperatiben, elkarteen, kooperatiba-multzoen edo beste erakunde batzuen eraketan parte hartu ahal izango du edo lehendik sortuta dauden beste batzuei atxiki dakieke, bere helburu soziala lortzeko modu eraginkorrago gisa.

Bi. Barne Araudi Kooperatibo honetan ezarritakoa aplikatzea aurreko apartatuan definitu diren eta Kooperatibaren parte-hartzea formalki erabaki duten erakundeen Estatutu eta Araudien baitan geratuko da. Estatutuen eta Araudien eta beste haien arteko benetako edo itxurazko kontraesanaren kasuan, azken horietako klausulak nagusituko dira edo, bestela, hitzarmen horiek hirugarrenekin baliozkotasunez adostutakoekin arautzen dituzten estipulazioak.

VIII. atala. GREBAREN ERREGULAZIOA (Estatutuetao 32. artikulua)

32. artikulua. Arrazoiak

Bat. Bazkideen eta organo gidarien artean sor litezkeen desadostasunak epaitzeko behar diren bitartekoak Kooperatibak bere baitan dituzenez, azken unean Batzar Nagusiaren aurrean apelazioa aurkezteko aukerarekin, barne-arrazoiengatik greba egitea, batetik, kontraesana da eta, bestetik, gehiengoak erabakitako arauak eta prozedurak urratzea. Lantoki bakoitzaren ingurunearekiko elkartasun-arrazoiengatik soilik ulertzen da greba egitea.

Bi. Norbanakoek grebarekiko duten jokabidea lantoki bakoitzak gehiengo bidez hartutako erabakietara doitu beharko da.

Hiru. Gehiengo osoa grebaren aldekoa bada, etenda geratuko da lansaria jasotzeko eskubidea grebak irauten duen bitartean. Ideologiagatik edo arrazoi pertsonalengatik gehiengoaren erabakia betetzen ez duten eta greba egitea erabakitako denboran lan egiten duten bazkideei ez zaie denbora hori ordainduko. Gehiengoaren erabakia lan egitea izanda greba egiten duten bazkideek komunitateari eragindako galera ekonomikoa konpentsatu beharko dute, galdutako denboraren kontsumo-aurrerakinaren orduko balioarekin.

Lau. Kooperatibaren helburu sozialarekin zerikusirik ez duten kanpoko arrazoiengan oinarritutako grebak hemen ezarritako printzipioetara eta Kontseilu Errektoreak onetsitako kanpoko arrazoiengatik Greba Araudian jasotako prozedurara doitu dira.

33. artikulua. Gutxieneko zerbitzuak mantentzea

Zuzendaritzak, baimendutako greba izaten den kasuan, Kooperatibak funtzionatzeko nahitaezko premiengatik euren lan-funtzioak bete behar dituzten pertsonak izendatu behar ditu, Egoitza Nagusirako nahiz gainerako lantokietarako. Kasu horretan, grebaren baimenerako sortutako gehiengoaz aparte, dagokien lan-aurrerakina sortuko dute lan-bazkideek. Eta hori guztia Estatutu Sozialetako 26 c), 20 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

IX. atala. DIZIPLINA-ERREGIMENA

34. artikulua. Diziiplina-arauak. Hutsegite sozietarioak/lanekoak (Estatutuetao 25. artikulua)

Lan-bazkideak jarduera profesionala eskaintzearen ondoriozko hutsegiteak arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira euren garrantzia, behinentasuna eta intenzionalitatea kontuan hartuz, eta dagokien zehapena aplikatuko zaizkie.

35. artikulua. Hutsegite sozietarioen eta lanekoan sailkapena (Estatutuetao 26. artikulua)

Hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Hutsegite arinak izango dira.

Izaera sozietariokoak.

1. Kooperatibaren helburuak garatzeko eta gizalegez jokatzeko zehaztu diren arauak ez betetzea.
2. Barne-funtzionamendurako arauak, araudiak eta estatutuetoako prezeptuak ez betetzea, aitzakiarik gabeko ezjakintasunagatik.
3. Deia jaso arren, arrazoi justifikaturik gabe ekitaldi sozialetara ez joatea.

Lan-izaerakoak.

4. Arrazoi justifikaturik gabe lanera huts egitea hilabetean bi orduz.
5. Zabarkeria edo aitzakiarik gabeko axolagabekeria, Kooperatibaren interesei kalterik eragiten ez badie.
6. Justifikaziorik gabe lanera bost aldiz baino gehiagotan berandu iristea hiruhileko natural batean.
7. Istripu arinak sor ditzakeen arreta-falta izatea, eta istripuak eragozteko jarraibideak axolagabekeriaz betetzea.
8. Lana justifikaziorik gabe uztea eta lanarekin zerikusirik ez duten jarduera arinak burutzea.
9. Bazkide bakoitzari esleitutako lanak eragozten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.
10. Lan-bazkidearen hutsegiteak, Kooperatibako kide den Lagun Aroko mutualista gisa egindakoak, eta aipatutako mutualitate horretako Estatutuetoan hutsegite arin gisa aipatzen direnak:

- Kide den kooperatibari helbide-aldaketaren berri ez ematea.
- Lanerako ezintasun iragankorra eta Behin-behineko baliaezintasuna dagoenean, medikuaren diagnostikoarekin bat ez datorren bizimodua izatea.
- Lagun Aroari identifikazio-txartela galdu izanaren berri ez ematea, galdu dela ohartu eta berehala.
- Lagun Aroren helburuak garatzeko eta gizalegez jokatzeko organo eskudunek zehaztu dituzten arauak ez betetzea.
- Funtzionamendu-arauak, araudiaren eta estatutuetoako prezeptuak ez betetzea, aitzakiarik gabeko ezjakintasunagatik.
- Deia jaso arren, arrazoi justifikaturik gabe ekitaldi sozialetara ez joatea, bereziki Batzar Nagusietara.

b) Hutsegite larriak dira.

Izaera sozietariokoak.

1. Hiru urte baino gutxiagoko epean hiru hutsegite arin baino gehiago egitea.
2. Deia jaso arren, ekitaldi sozialetara ez joatea arrazoi justifikaturik gabe, azken bost urteetan organo sozial horren bileretara ez joateagatik bazkidea bi hutsegite arin izateagatik zigortua izan denean.
3. Prestamen Batzarrean hautatutako Delegatuak Batzar Nagusira ez joatea, arrazoi justifikaturik gabe.
4. Hautatu eta gero, bete behar dituzten kargu sozialen betebeharrak behar bezala ez egitea.
5. Izendatu eta gero, kargu sozial horiek ez onartzea edo arrazoi justifikaturik gabe dimisioa ematea, Kontseilu Errektoreak hala erabakiz gero.

Lan-izaerakoak

6. Urtebete baino gutxiagoko epean hiru falta arin egitea.
7. Arrazoi justifikaturik gabe lanera huts egitea hilabete batean zortzi orduz.
8. Justifikaziorik gabe lanera hamar aldiz baino gehiago berandu iristea hiruhileko natural batean.
9. Kanpoko jendearerikiko begirune falta eta hitzezko eta egitezko tratu txarrak lankideei.
10. Protesta-ekintzak modu lotsagabe eta zaratatsuan egitea, baita hutsegite arinengatik ezartzen diren zehapenak ez betetzea ere.
11. Errendimendurik eza, eta berebat indiziplina edota gaineko arduradunek laneko gaietan esandakorik ez onartzea.
12. Istripu larriak sor ditzakeen arreta-falta izatea.
13. Lanbide-sekretua haustea, kalterik sortu ez arren.
14. Segurtasun-arauak ez betetzea, borondatez edo zabarkeriaz.
15. Dokumentuak, gutunak eta datuak baimenik gabe atxikitzea, edo horiei dagokien aplikazioa, helburua edo erabilera ez ematea.
16. Lanaldian zehar lan edo zerbitzu partikularrak egitea, eta Kooperatibaren tresnak, materialak eta bideak norberaren zeregin propioetarako erabiltzea.
17. Zuzendaritzak eta arduradunek bezeroei deskontuak eta bestelako arriskuak esleitzeko funtzioen eta eskumenen gehiegizko erabilera egitea, eta funtzio eta eskumen horiek ez dituztenek horiek bereganatzea.
18. Aginte-gehiagikeria, tratu txarrak edo bazterkeriazko jokaera larriak edukitzea mendekoekin.
19. Bazkide bakoitzari esleitutako lanen eta erantzukizunen martxa ona modu larri batean behaztopatzen duten uzteak edo ez-egiteak.
20. Bazkide bakoitzari esleitutako lanen eta erantzukizunen martxa ona modu larri batean behaztopatzen duten ekintzak edo ez-egiteak.
21. Lan-bazkidearen hutsegiteak, Kooperatibako kide den Lagun Aroko mutualista gisa, eta aipatutako mutualitate horretako Estatutuetan hutsegite larri gisa aipatzen direnak egitea:

- Sarrerako mediku-azterketan daukan edozein gaixotasun edo lesio ez deklaritzea.
- Enplegu-aniztasunean aritzea Kooperatibari ezer adierazi gabe, egoera horrek sortzen duen estalduraren jakitun dela erakutsiz.
- Lanerako ezintasun iragankorra behar ez bezala luzatzea, edo Lagun Arok susperraldirako ezarritako diziiplina ez betetzea.
- Hutsegite arinak errepikatzea.
- Egindako edo ikusitako hutsegiteak borondatez edo zabarkeriaz ezkutitzea, edo deklarazioak fairsutzea ekintza horiek kalte larriak sortu dituztenean edo eginbeharrak ez betetzea arandiaz adieraztea.
- Alta baldintzatuan dagoen mutualista lanera itzultzeari buruz Erregelamendu egokien Artikulu aplikagarrietan jasotzen dena onartzeari uko egitea.
- Ezarrita dagoenaren kontra, Osasun Laguntzaren prestazioak edo Lanerako Ezintasun Iragankorra antzeko beste batekin borondatez osatzea, Kontseilu Errektoreak berariaz baimenik eman gabe.

22. Oro har, Kontseilu Errektoreak larritzat jotzen dituen guztiak, Kooperatibaren funtzionamendu ona bermatzeko.

c) Hutsegite oso larriak izango dira.

Izaera sozietariokoak.

1. Hiru urte baino gutxiagoko aldi hiru hutsegite larri edo gehiago egitea.

2. Organo eskudunetan balio osoz onartutako akordioak ez betetzea.
3. Kooperatibaren interes materialei edo ospe sozialari kalte egin diezaioketen jarduerak burutzea, hala nola lehiako eragiketak egitea, ekarpenetan eta prestazioetan maulaz jokatzea, Erakundeko kudeatzaileei edo ordezkariiei begirune-falta adieraztea eta antzekoak.
4. Berez Kontseilu Errektoreari, Errekurtso Batzordeari, Jagoletza Batzordeari edo horietako edozein kideri dagozkion eginkizunak bere gain hartzea.
5. Kooperatibaren funtzionamendua arautzen duten xedapenak nabarmen ez betetzea edo besteei ez betearaztera bultzatzea, beste bazkide batzuek hutsegiterik egin ez arren.
6. Kooperatibaren jardueretan gutxi parte hartzea, Estatutuetako moduluetan jasotakoaren arabera.
7. Kooperatibarekiko betebeharrak ekonomikoak eta Estatutuen 17. artikuluan jasotzen direnak behin eta berriz ez betetzea.
8. Bazkide-izaeraz baliatzea jarduera espekulatiboak edo legearen kontrakoak garatzeko.
9. Kooperatibaren korrespondentzia-sekretua edo dokumentu erreserbatuak bortxatzea edo Kooperatibaren inguruko isilpeko datuak kanpokoei jakinaraztea.

Lan-izaerakoak.

10. Urtebete baino gutxiagoko epean hiru falta larri egitea.
11. Justifikaziorik gabe lanera hogei aldiz baino gehiago berandu iristea hiruhileko natural batean.
12. Arrazoi justifikaturik gabe hilabete batean hogei orduz lanera huts egitea.
13. Kooperatibarekiko iruzurra, desleialtasuna edo konfiantza-abusua kooperatibak eskatutako egitekoetan jardutean edo egiteko horiek baliatuz, eta baita zerbitzutik kanpo Kooperatibari iruzur egiten dioten ekintzak burutzea ere.
14. Lanbide-sekretua haustea Kooperatibari edo hirugarren batzuei kalte egiten dienean.
15. Zerbitzuarekin zerikusia duten dokumentuak edo datuak faltsutzea edo bahitzea.
16. Ebasketa, lapurreta, bidegabe jabetzea eta iruzurra, zenbatekoa edozein dela ere; eta, oro har, Kooperatibari kalte egiten dioten edo Kooperatibaren zerbitzura zauden bitartean ekintzak egitea edo ekintzak egin gabe uztea.
17. Dolozko edozein delitugatik kondenatzea, Kooperatibaren iritziz eta bereziak izateagatik delitu horiek egin dituen pertsonarenganako konfiantzan eraginik ez dutenak izan ezik.
18. Kooperatibako hornitzaileengandik eta/edo bezeroengandik edota hirugarren batzuengandik –zuzenean nahiz zeharka– ordainsariak, promesak, abantailak edo edozein motatako laguntzak onartzea edo kudeatzea, haientzat zerbitzu bat egiteagatik edo egin izanagatik.
19. Kooperatibatik kanpoko lanak edo jarduerak burutzea bateraezintasunak egon daitezkeela susmatzen denean.
20. Lantokia bezeroentzat ixtea Zuzendaritzaren baimenik izan gabe edo ardura hori duten pertsonen agindurik izan gabe.
21. Barruko arazoengatik grebak antolatzea edo grebetan parte hartzea.
22. Indiziplina edota gainerako arduradunek laneko gaietan esandakorik ez onartzea, horrek Kooperatibari edo lankideei kalte handia egiten dienean, baita hutsegite larriengatik ezartzen diren zehapenak ez betetzea ere.
23. Zentroko zuzendaritzak bezeroei deskontuak eta baldintza komertzialak esleitzeko funtzioen eta eskumenen gehiegizko erabilera oso modu larrian egitea.
24. Aginte-gehiegieria, tratu txarrak edo bazterkeriazko jokaera oso larriak edukitzea mendekoekin.
25. Justifikaziorik gabe lana uztea eta lanarekin zerikusirik ez duten jarduera oso larriak burutzea.

26. Istripu oso larriak sor ditzakeen arreta-falta izatea.
27. Bazkide bakoitzari esleitutako lanen eta erantzukizunen martxa ona modu larri batean behaztopatzen duten ekintzak edo ez-egiteak.
28. Lan-bazkidearen hutsegiteak, Kooperatibako kide den Lagun Aroko mutualista gisa, eta aipatutako mutua horretako Estatutueta hutsegite oso larri gisa aipatzen direnak egitea:
- Lagun Arori prozedura zibil edo penalak ezkutatzea, edo prozedura horien datak ez jakinaraztea.
 - Norberaren eskubideei uko egitea edo erantzule diren hirugarren batzuekin edota haien aseguru-etxeekin akordio batera iritea Lagun Aroren baimenik gabe.
 - Lagun Arori aurreratutako zenbatekoari dagokion zatia itzuli nahi ez izatea, jasandako kalteen kalte-ordaina zehaztu eta gero.
 - Gaixotasunaren edo jasandako lesioen arrazoiak ezkutatzea edo faltsutzea.
 - Edozein gaixotasun edo istripu simulatzea, eragitea edo larriagotzea, borondatez edo maltzurkeriaz.
 - Baja-egoeran lan egitea, baldin eta alta baldintzaturako aurrez ikusitakoa betetzen ari ez bada.
 - Identifikazio-txartela hirugarren batzuei ematea edo noizean behin uztea iruzur egiteko, edo mutualistak eta onuradunak ez diren pertsoneri bolantea ematea.
 - Lagun Aroren interesen kaltetan eta jakinaren gainean iruzur egitea edo ondorio horietara eramaten duten bideak borondatez jartzea.
 - Hutsegite larriak errepikatzea.
29. Batzar Nagusian balio osoz hartutako erabakiak betetzeari uko egitea.
30. Oro har, Kontseilu Errektoreak larrizat jotzen dituen guztiak, Kooperatibaren funtzionamendu ona bermatzeko.

36. artikulua. Hutsegite sozietario eta lanekoengatiko zehapenak (Estatutueta 27. artikulua)

Kasu bakoitzean ezarriko diren zehapenak honako hauek dira:

a) Hutsegite arinengatik.

1. Idatzizko zentzarazpena.
2. Bi egun arterainoko lan-aurrerakinak kentzea, lan-jarduera bertan behera utzita. Bazkideak aldi horretan lan-jarduera bertan behera ez uztea aukera dezake.

b) Hutsegite larriengatik.

1. Idatzizko zentzarazpena.
2. Idatzizko ohartarazpena, Kontseilu Errektorearen iritziz publiko egin daitekeena.
3. Errektore eta Errekturso Batzordeko kide edo Jagoletza Batzordeko kide hautatua izateko ezintasuna, hurrengo ondoz ondoko bi hauteskundeetaraino.
4. IPHNEn edo beste instantzia baten kargura Kooperatibak bazkideen alde ezarritako laguntza-zerbitzuak urtebetez kentzea.
5. Zazpi egun arterainoko lan-aurrerakinak kentzea, lan-jarduera bertan behera utzita. Bazkideak aldi horretan lan-jarduera bertan behera ez uztea aukera dezake.
6. Goragoko lanpostua eskatzeko desgaitzea gehienez ere hiru urtez.
7. Lan-indizea % 10 arte murriztea gehienez ere urtebetez.

c) Hutsegite oso larriengatik.

1. Aurreko guztiak.
2. Idatzizko zentzarazpena, Kontseilu Errektoreak formulatuta.
3. Eskubide sozial guztiak edo batzuk behintzat etetea, Kontseilu Errektoreak zehaztutako denboran zehar, gehienez ere hiru urtez.
4. Kooperatibaren zerbitzuak aldi baterako etetea gehienez ere hiru urtez.
5. Bi hilabete arterainoko lan-aurrerakinak kentzea, lan-jarduera bertan behera utzita. Bazkideak aldi horretan lan-jarduera bertan behera ez uztea aukera dezake.
6. Lan-indizea % 30 arte murriztea gehienez ere bost urtez.
7. Nahitaez lanpostuz aldaraztea; izan daiteke beheragoko maila batera (talde profesional berean edo beste batean) eta denbora mugagabez.
8. Beste udalerri bateko zentrora nahitaezko lekualdaketa, denbora mugagabez eta kalte-ordaina eskuratzeko eskubiderik gabe.
9. Kanporatzea.

37. artikulua. (edukirik gabe)

38. artikulua. Kanporatzea (Estatutuetako 29. artikulua)

Bat. Bazkideen kanporatzea, oso hutsegite larriagatikoa, Kontseilu Errektoreak soilik erabaki dezake, interesdunaren deskargua barne hartuko duen ondore horretarako egindako espedientearen ondorioz.

Bi. Kanporatze-erabakiaren aurka, bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du, jakinarazpena egiten denetik hogeita hamar egun naturaleko epean, Errekurtsio Batzordearen aurrean, eta hark gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi beharko du, jakinarazpena egiten zaien egunetik aurrera. Kanporatzea berresten duen erabakia betearazlea izango da, eta bazkideak aurkaratu ahal izango du erabakia jakinarazten denetik bi hilabeteko epean, prozesu bidez eta Euskadiko Kooperatiben Legeak ezarritako baldintzetan.

III. Kapituluia.

LANGABEZIA

39. artikulua. Kooperatiben arteko solidaritatea

Kooperatiba Lagun Arok araututako langabeziari aurre egiten laguntzeko kooperatiben arteko akordioari lotuta dago. Harreman horren baitan, Kooperatiba behartuta dago Lagun Arorekin elkartuta eta egiturazko langabezia-egoeran dauden beste erakunde batzuetako bazkideak, ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, sor daitezkeen lanpostuetan hartzera.

Halaber, Kooperatiban langile-soberakina izaten bada, eragindako lan-bazkideek Lagun Aro osatzen duten eta bete beharreko lanpostu hutsak dituzten beste erakunde batzuetan birkokatzeke eskubidea dute.

40. artikulua. Definizioa

Bat. Behar bestekoa ez den errentagarritasuna eragiten duen enpresa-jardueraren murrizketaren aurrean, orokorra nahiz jarduera jakin batean lokalizatutakoa bada, Kontseilu Errektoreak, Zuzendaritzaren txostena jaso eta Kontseilu Sozialari iritzia entzun ondoren, langile-soberakina dagoela ebatzi dezake salbuespen gisa.

Kasu horretan, Kontseilu Errektoreak erabakiko ditu soberakinen kopurua, jarduketa-prozedurak eta egoera horretan dauden bazkideen tratamendua.

Bi. Jardueraren murrizketa partziala denean, lehenik eta behin eragindako zentro, sail edo ataletan lan egiten duten bazkideei aplikatuko zaizkie neurriak.

Hiru. Egiturazko langabezia ebatzen den eta lantaldea murriztea erabakitzen den kasuetarako, eragindakoak prest egongo dira Kooperatibaren beste zentro batean edo beste erakunde batzuetan birkokatzea eskatzen duen mugikortasunerako.

Lau. Birkokatzea edo langabezia-neurriak hartzea beharrezkoa izango balitz, lehenik eta behin eskaera boluntarioei erantzungo zaie eta gainerakoentzat operatibitate- eta funtzionalitate-irizpideak hartuko dira kontuan.

41. artikulua. Prestazioa

Bat. Egiturazko langabezian dagoen bazkideak Lagun Aroren prestazioan definitutako ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, hain zuzen ere, Mutualitateak eta Kooperatiban jardunean dauden gainerako bazkideen ekarpen solidarioak finantzatzen dutena.

Bi. Langabezia-denboran bazkideak ordaindutako lana egingo balu beste enpresa edo jarduera batean, kontuan hartuko da aurreko ordainsaria behar den bezala aldatzeko.

Hiru. Nolanahi ere, langabezian dagoen bazkidea Kooperatibaren eskueran egongo da, bai eskatzen zaion edozein lanpostu betetzeko, bai Kooperatibak antola ditzakeen beste jarduera batzuetan parte hartzeko, prestakuntza-jardueretan nahiz bestelakoetan. Lan edo jarduera horiek egiteari uko egiten dion bazkideak langabezia-saria jasotzeko eskubidea galduko du. Hutsegitea "lanera huts egite" gisa hartuko da eta, beraz, diziplina-espeditentea irekiko zaio.

I. Kapituluia.

II. TITULUA: EKONOMIA-ARAUBIDEA

BAZKIDEEN KAPITALERAKO EKARPENA

42. artikulua. Bazkide berrientzako Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpentak (Estatutueta 36. artikulua)

Bazkideen hasierako nahitaezko ekarpentak Batzar Nagusiak alda ditzake, Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera eguneratuz.

43. artikulua. Lan-bazkide berriak sartzeko kuotak (Estatutueta 41. artikulua)

Lan-bazkide berriek ordaindu beharreko sarrera-kuotak urtero erabakiko dira Batzar Nagusian. Eskatuko den zenbatekoak ezin du gainditu Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpentaren % 25.

44. artikulua. Ekarpent Sozialen interesak (Estatutueta 39. artikulua)

Bat. Lan-bazkideek Kooperatibaren Kapital Sozialera egindako ekarpentak urtero ordaindu ahal izango dira, erreferentziako guztizko interes gordin batean oinarrituta, eta ezingo ditu gainditu Estatutu Sozialetako 39. artikuluan aurreikusitako mugak.

Ondore horietarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Sozietateen gaineko Zergaren aurreko emaitza gordinak, kooperatiben arteko emaitza eta funtsen birmoldaketa, besteren konturako langileen emaitzetako partaidetza, IPHNERako zuzkidura eta kapitalaren ordainketa bera, aurreko ekitaldietatik konpentsatu gabe dauden Erreserba Negatibo Indibidualizatuak kenduta, halakorik balego, eta kanpoan utziz Aparteko Emaitza Garbi positiboak eta lan-bazkideen Aurrerakin-ahaleginak. Halakotzat joko dira:
 - o Aparteko emaitza garbi positiboak: Aktibo ez-korronteko elementuak besterentzeagatiko gainbalioak, zerga- eta lege-aldaketen ondoriozko inpaktuez gain.
 - o Aurrerakin-ahaleginak: Lan-bazkideen lan-aurrerakinak aurreztea, hau da, Lagun Aroren Kotizazio Tarifaren % 100aren azpitik egotea, aparteko ordainsariren bat ez sortzeaz gain, baita ordutegi-ahalegina ere, betiere ahalegin hori MONDRAGONeko ordutegi modalaren % 3tik gorakoa bada.
- EET:
$$\text{Emaitza garbia (1) + Sozietateen gaineko zerga + Finantza Gastuak}$$

Batez besteko Lan-aktiboa (2)

(1) *Emaitza garbia*= Ekitaldiko emaitza kontsolidatua + IPHNERako zuzkidura + Emaitzen birmoldaketa + Funts Korporatiboetarako zuzkidurak.

(2) *Batez besteko Lan-aktiboa*= -1 urtearen Lan-urteko Lan-aktiboa *

(*) *Lan-aktiboa = Ondare Garbia + Hartzekodunak luzera kostuarekin + Hartzekodunak laburrera kostuarekin.*

- ZFG/EBITDA:

Kostu luzerako hartzekodunak + Kostu laburrerako hartzekodunak – Altxortegia – Aldi baterako finantza-inbertsioak

EBITDA (3)

(3) *Ekitaldiko emaitza kontsolidatua + Sozietateen gaineko Zerga + Finantza Gastuak + Amortizazioak + Homidurarako zuzkidura + Ibilgetua besterentzeagatiko nariadura eta emaitza + IPHNERako zuzkidura + Emaitzen birmoldaketa + Funts Korporatiboetarako zuzkidurak.*

- IRa balantze kontsolidatuan dagoen erlazioaren arabera neurtuko da, ekitaldiko soberakin garbiak Ondare Garbiaren eta Galdagarriaren artean banatu aurretik, eta horiek kalkulatzeko bezeroen aurrerakinak kenduko dira galdagarritik.

Bi. Ekarpen Sozialen interesak kobratzearen ondoriozko zerga-betebeharrak lan-bazkidearen kontura eta kargura izango dira.

Hiru. Errekurtsoen kudeaketa eraginkorrago baten ondoretarako, Batzar Nagusiak onets dezake Kooperatibaren Funts Propioetara sartu diren Kapital Sozialari egindako ekarpen guztien interesak alde aurretik ordaintzea, baita Estatutuetako 37. artikuluan oinarritutako ezaugarriak dituzten jaulkipenenak ere, Funts Propioetat hartzeko baldintzak betez gero.

Aipatutako baldintzak bete direla ziurtatzea Kontseilu Errektorearen betebeharra izango da, eta, hori dela-eta, interesen ordainketa egiteko erabakia Kontseilu Errektorearen ordainketaren dataren eta ziurtapenaren mende egongo da. Edonola ere, Kontseilu Errektoreak erabakitako ordainketaren ondoren egindako aurreneko Batzar Nagusiak berretsi beharko du erabakia.

44 bis artikulua. Ekarpen sozialen interesen monetarizazioa.

Bat. Interesa monetarizatzeko gehieneko ehunekoen taula ezarri da kooperatibaren independentzia finantzarioaren ratioaren eboluzioaren arabera:

Independentzia-ratioa	Interes sortuen gaineko monetarizazioaren gehieneko interesa
IR \geq 0,40	% 100
0,40 > IR \geq 0,35	% 75
0,35 > IR \geq 0,30	% 50
0,30 > IR \geq 0,25	% 25
0,25 > IR	% 0

Bi. Ondore horietarako, ekitaldiko soberakin garbien banaketaren aurretik finantza-informazioari buruzko nazioarteko arauetan ezarritako irizpideekin egindako balantze bateratuan Ondare Garbiaren eta Galdagarriaren artean dagoen erlazioaren arabera neurtuko da independentzia-ratioa. Independentzia-ratioa kalkulatzeko, bezeroen aurrerakinak kenduko dira Galdagarritik, baina 2004an edo lehenago jaulkitako Mendeko Finantza Ekarpenak funts Propioetat joko dira ondore horietarako.

45. artikulua. Erretornuak eta estornuak (Estatutueta 45. eta 46. artikulua)

Bat. Lan-bazkideentzako erretornu kooperatiboa haiek egindako zerbitzuaren proportzioan egiaztatuko da, ekitaldian eta aurreko bi ekitaldietan jaso dituzten aurrerakin konputagarrien arabera neurtuta, eta Kapital Sozialari gehituko zaio nahitaezko ekarpen gisa. Hiru baino lan-indize altuagoa duten bazkideek aipatutako indizeari dagozkion erretornuak bakarrik eskuratu ahal izango dituzte.

Bi. Erretornuen aplikazioa erabaki ahal izateko, Batzar Nagusiak Estatu Sozialetako 39 bis artikulua erabiltzen apartatua adierazitakoa hartu beharko du kontuan.

Hiru. Estornuen kasuan, erretornuen kasurako irizpide berak aplikatuko dira.

Lau. Iraupen mugatuko lan-bazkideen kasuan, lanbide-kalifikazio bereko edo baliokideko lan-bazkide mugagabeei aitortutako kooperatiba-erretornuaren % 50 jasotzeko eskubidea izango du. Iraupen mugatuko bazkideak galaren egozpenetik kanpo geratuko dira.

46. artikulua. Ekarpnaren eguneratzea (Estatutueta 47. artikulua)

Kooperatibaren Balantzea zuzenbide erkideko sozietateentzako ezartzen diren baldintza beretan eta etekin berekin erregularizatu ahal izango da, balantzearen erregularizazioaren emaitzaren xedeari buruz Estatueta ezarritakoari kalterik egin gabe.

47. artikulua. Kapital Sozialari egin beharreko transferentziak bazkideen artean (Estatutueta 35. eta 40. artikulua)

Kontseilu Errektoreak ezarriko ditu, kasu bakoitzean, bazkideen artean kapital soziala transferitzeko baldintzak. Estatueta adierazitakoez gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Bazkide bakar batek ere ezingo du modu honetan eduki Kooperatibaren Kapital Sozialaren % 25 baino gehiago.
- b) Ezingo da transferitu maileguren bat bermatzen ari den ekarpenik.
- c) Transferitu beharreko gutxieneko zenbatekoa 300 eurokoa izango da.
- d) Ekarpnaren transferitzen duen bazkideari transferentzia egiteko unean bazkide berrientzat ezarri den nahitaezko ekarpenaren pareko zenbatekoa gelditu beharko zaio gutxienez.
- e) Ez da onartuko bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpena egiteko transferentziarik.

48. artikulua. Kapital Sozialaren nahitaezko zabalteak

Bat. Modu objektiboan definitutako premiak ikusita, lan-bazkideek Kapital Sozialera nahitaezko ekarpenak egitea erabaki dezake Batzar Nagusiak. Horretarako, zabaltearen zenbateko osoa ezarriko da.

Bi. Lan-bazkideen zabaltearen zati baten banaketa haietako bakoitzaren laneko indizearen arabera egingo da.

Hiru. Nahitaezko zabaltearen erregulazio xehatua egitea komenigarritzat jotzen bada, Kontseilu Errektoreak onetsitako araudi espezifikoan oinarrituta egingo da.

49. artikulua. Kapitalerako ekarpenaren itzulketa, baja-kasuetan (Estatutuetoako 23. artikulua)

Bat. Kapitalerako ekarpena, kooperatibak itzulketa-eskaera onartu ondoren, bazkideei ordainduko zaie.

Baja emateko unean bazkideak dituen inguruabarren eta Kooperatibaren egoera ekonomiko-finantzarioaren arabera egingo da ordainketa.

Bi. Itzulketa onartu baina oraindik ordaindu ez den ekarpenak urteko interesa jasoko du, diruaren legezko interesaren parekoa.

Hiru. Itzulketa-eskaera onartzen den datatik aurrera, ordaintzeke dauden zenbatekoak kapital-kontutik inguruabar hori jasotzen duen beste batera lekualdatuko dira, eta, beraz, zenbateko horiek ezin izango dira eguneratu.

II. Kapituluua.

KOOPERATIBAKO HEZKUNTZA ETA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO NAHITAEZKO EKARPENA (IPHNE) (Estatutueta 38. artikulua)

50. artikulua. IPHNE Xedapen orokorrak

Bat. IPHNE Estatutu Sozialen 38. artikuluan ezarritako ekimenak bezalakoak sustatu, gauzatu eta finantzatzeko erabiliko da batik bat.

Bi. IPHNE Kontseilu Errektoreak administratuko du.

Batzorde Kontsumerista Lokala duten udalerrietan, Kontseilu Errektoreak bere Kudeaketa Planean aurrez ikusitako ekintzak egiteko bidera ditzake funtsak.

51. artikulua. Indargabetua

52. artikulua. Indargabetua

53. artikulua. Eskaerak eta baldintzak

Bat. Edozein erakundek IPHNEk erantzuteko xedez Eroski S.Coop.i bidaltzen dion eskabide orok honako datu hauekin batera joan behar du, behar den bezala baloratua izan dadin:

- a) Laguntza eskatzen duen erakundeari edo pertsonari buruzko datuak, bere helburu soziala, bere nortasuna eta gizartean duen ezarpen-maila zehaztuz.
- b) Eskatutako laguntzaren helburua eta xedea eta herrian izango duen ondorioa, baita erakundearen jardueren proiektu orokorrean izango duen integrazio-maila ere.
- c) Beste finantzaketa-iturri batzuk.
- d) Eroski S.Coop.era jotzeko arrazoiak.

Bi. Eskaera bakoitzarekin batera jardueraren proiektu bat aurkeztu behar da, globala izan daitekeena Kooperatibaren laguntza beste bat gehiago denean eta ez oso garrantzitsua proiektuaren kostu orokorrarekiko.

Hiru. Hala ere, ebatzi behar duen Eroski S.Coop.eko organoak balorazioa osatu eta erabakia hartzeko behar duen informazio guztia eska dezake. Halaber, egoki irizten badio, baldintzak edo mugapenak jarri ahal izango dizkio emandako laguntzari eta baita laguntzaren xede izango diren jarduerak egiten diren egiaztatu ere.

Lau. Egindakoaren edo laguntza eskatzean aurreikusten ziren helburuen egite-mailaren memoria ere eska dezake.

54. artikulua. Indargabetua

I. TITULUA: ORDEZKARITZA ETA INFORMAZIO-ORGANOENA

I. Kapitularia.

DELEGATUEN BATZAR NAGUSIEN ARAUBIDEA

55. artikulua. Delegatuen Batzar Nagusiaren saioak (Estatutuetao 49. artikulua)

Batzar Nagusiak ohiko bilkuran edo aparteko bilkuran egin daitezke. Ohiko Batzar Nagusia aparteko izaerarekin ere deitu ahal izango da Batzar Nagusi bereziaren eskumeneko gaiak erabakitzeo, baldin eta Batzarraren Gai Zerrendan berariaz adierazten bada.

56. artikulua. Batzarraren garapena (Estatutuetao 52. artikulua)

Bat. Batzar Nagusia garatzeko, lehenik eta behin bertaratutako Delegatuen zerrenda egingo da, eta bakoitzaren ordezkariak egiaztatuko dira. Egindako protestak jasoko dira, eta Lehendakariak ebatziko du, Jagoletza Batzordeak lagunduta, haiek sartzeari edo bazterteari buruz.

Bi. Ondoren, Lehendakariak zuhurtziaz erabakitako ordenan aztertuko dira gaiak, indarreko legeriak ezarritako gaien lehentasuna errespetatuz.

57. artikulua. Arazoak ebazteko moduak (Estatutuetao 52. artikulua)

Bat. Batzar Nagusiak erabaki beharreko gaiak aho batez edo bozketa bidez ebatziko dira. Bozketak sekretuak izango dira organo sozialetako kideak aukeratzea edo berritzea xede dutenean, organo sozialetako kideen aurkako erantzukizun-akzioa gauzatzeko erabakia hartu behar denean edo ekintza hori gauzatzeari amore ematea edo uko egitea erabaki behar denean. Bertaratutako eta ordezkarietako botoen % 10ek hala eskatzen duenean, gai-zerrendako edozein punturi buruzko erabakia ere bozketa sekretu bidez hartuko da. Gainerako bozketetan, modalitatea Lehendakariaren eskumena izango da.

Bi. Aho batez onesten dela ulertuko da Delegatuen Batzar Nagusiaren erabakipean jarritako proposamenak bozketa eskatzen duten iritzi desberdinak daudela agerian uzten duen desadostasun publiko eta arrazoiturik sortzen ez duenean.

Hiru. Bozketa egiten bada, erabakia gehiengo soilez hartuko da, lege- edo estatutu-xedapenen arabera gehiengo kalifikatua eskatzen duten kasuetan izan ezik. Edozein kasutan, gehiengoek baliozko botoei soilik egingo diete erreferentzia.

Lau. Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, bozketa nominatibora jo ahal izango da, Kooperatibaren iraupenerako edo garapenerako funtsezko erabaki edo auzietarako pertsonen gaineko judizioa ematea eskatzen duten kasuetan izan ezik.

58. artikulua. Ordezkaritza-eskubidea (Estatutuetao 52. artikulua)

Estatutuetao 52.7 artikulua aipatzen duen ordezkari-tza-eskubidearen ondoretarako, ahalordea idatziz emango da, bazkide ordezkariaren izena adieraziz eta bazkide ordezkariaren deialdi pertsonalean sinatuz. Jagoletza Batzordeari dagokio ordezkari-tza egiaztatzen duen idatziaren egokitasunari buruz erabakitzea.

59. artikulua. Bileraren akta onestea eta betearaztea (Estatutuetoako 52. artikulua)

Batzar Nagusiko Idazkaritzari dagokio bileraren akta idaztea. Akta horretan adieraziko dira eztabaida non eta noiz egin den, bertaratutako bazkideen kopurua, lehenengo edo bigarren deialdian egin den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jasotzea eskatu duten esku-hartzeak, hartutako erabakiak eta bozketen emaitzak. Batzar Nagusiko Lehendakariak eta Batzarrean bertan izendatutako hiru bazkidek onetsiko dute akta hamabost eguneko epean. Erabakiek hartutako une beretik eragingo dituzte ondoreak.

II. Kapituluia.

PRESTAMEN-BATZARRAK (Estatutueta 54. artikulua)

60. artikulua. Izaera

Bat. Kooperatibaren bizimodu sozietarioan parte-hartze zuzena eskaini ahal izateko, Ohiko Batzar Nagusiaren aurretiko Prestamen Batzarrak egingo dira, Kooperatibako bizimoduari buruzko informazio arin, argi eta argitzailea emango dutenak.

Bi. Prestamen Batzarrek bazkideen delegatuak aukeratu behar dituzte Batzar Nagusirako, Estatutu Sozialetako 54. artikulua bostgarren puntuaren arabera.

Hiru. Prestamen Batzarrak urtean behin egingo dira eta ez da beharrezkoa izango Prestamen Batzarra egitea Ohiko Batzarren arteko aldiaren Aparteko Batzar Nagusia deitu behar den kasuan.

61. artikulua. Lan-bazkideek Batzar Nagusirako Delegatuak izendatzea

Bat. Estatutu Sozialetako 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan-bazkideek Prestamen Batzarrean Batzar Nagusirako izendatu beharreko Delegatuen gehieneko kopurua 250ekoa izango da.

Bi. Muga horri eta Prestamen Batzarra deitutako datan inskribatutako lan-bazkideen kopurua kontuan hartuta, Kontseilu Errektoreak kalkulatu du Delegatu bakoitzeko lan-bazkideen modulu aritmetikoa.

Kontseilu Errektoreak % 50eraino murriztu ahal izango du modulua, bazkide-kopuru txikiagoa duten zentroei atxikitako bazkideen ordezkari zuzena bideratzeko.

Hiru. Aurreko apartatuan definitutako modulua Kontseilu Errektoreak zehaztutako zentro edo barruti bakoitzean aplikatuko da. Kontseilu Errektoreak, Kontseilu Sozialari kontsulta egin ondoren, ateratzen diren barrutiak eta horietako bakoitzerako Delegatuen banaketa onetsiko ditu aurreko modulua aplikatuta.

Lau. Barruti bakoitzeko bazkideek izendatuko dituzte, bozketa sekretu bidez, Prestamen Batzarrari proposatuko zaizkion Delegatuetarako hautagaiak.

Bost. Bigarren puntuaren definitutako aplikazioak balio ez-osokoak eragin ditzakeenez, 0,50 gaingiduzten duten zatikiak gora biribilduko dira, betiere 250 gaingiduzte gabe.

62. artikulua. Lan-bazkide kontsumitzaileek Batzar Nagusirako Delegatuak izendatzea

Bat. Estatutu Sozialetako 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, bazkide kontsumitzaileen Delegatuak 250 izango dira.

Bi. Dagokion Prestamen Batzarraren aurrean Delegatu izateko bere burua aurkeztu nahi duten bazkideek inskribatuta dauden udalerriko Batzorde Kontsumeristaren aurrean adierazi beharko dute formalki eta pertsonalki edo, bestela, Kooperatibaren salmenta-zentrorik hurbileneko arduradunaren aurrean.

Hiru. Prestamen Batzar batek erabakitako eremu geografiko bati dagokion hautagai-kopurua estaltzen ez bada, Kontseilu Errektoreak jardunbide kooperatibo aipagarria izan duten bazkideak izenda ditzake aipaturiko Batzarrek onar ditzan.

Lau. Hautagaien kopurua hautatu beharreko Delegatuenaren berdina edo txikiagoa bada, hautagaiak Delegatu izendatuko dira dagokion Prestamen Batzarrean.

Bost. Prestamen Batzar bakoitzak bere eremu geografikoari dagokion Delegatuen kopurua soilik izendatu ahal izango du, Estatutu Sozialetako 54. artikulua seigarren puntuan ezarritako irizpideen arabera.

Sei. Batzar Nagusirako Delegatuetarako hautagai-zerrendak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, kasu bakoitzean dagokion Prestamen Batzarra deitua izan denetik aurrera.

63. artikulua. Batzar Nagusiko Delegatuen agintaldiaren iraupena eta betebeharrak

Bat. Prestamen Batzarrek Batzar Nagusiaren aurrean Delegatu gisa aurkezten dituzten bazkideek hiru urtez izango dute kargua, eta berriz hautatuak izateko aukera izango dute.

Bi. Aurreko puntuan aitortutako eskubidea galdu egingo da aldi horretan bazkide izateari uzten bazaio edo Estatutu Sozialetako 21. artikulua arabera Kontseilu Errektoreak eskubide hori indargabe uzten badu.

Hiru. Delegatuak nahitaezkoa du Batzar Nagusira joatea. Ondo justifikatu gabe ez joatea hutsegite larria izango da 35. artikulua b) apartatuaren 3) puntuan jasotakoaren arabera, eta 36. artikulua b) apartatuaren 3) puntuaren arabera zigortu ahal izango da, bazkidea Errektore, Errekurtsio Batzordeko kide edo Jagoletza Batzordeko kide izateko gaitasunik gabe utzita ondoz ondoko hurrengo bi hauteskundetan.

64. artikulua. Boto-eskubidea baliatzea

Bat. Prestamen Batzarrerako deialdiaren egunean dagokion Liburuan inskribatuta dauden bazkide guztiek dute eskubidea batzarrean parte hartzeko eta botoa emateko.

Bi. Hala ere, boto-eskubidea erabili ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar ditu bazkideak:

- a) Ekarpenak eta berariaz hartutako gainerako konpromisoak beteta izatea.
- b) Boto-eskubidea eteten dion zehapenik ez izatea.

III. Kapituluua.

KONTSEILU ERREKTOREA, JAGOLETZA-BATZORDEA ETA ERREKURTSO-BATZORDEA BERRITZEKO PROZEDURA (Estatutueta 74. artikulua)

65. artikulua. Hautagaitzen proposamenak

Bat. Hurrengo puntuan ezarritakoa alde batera utzita, Kontseilu Errektoreko, Jagoletza Batzordeko eta Errekurtsio Batzordeko kide hautatuak izateko hautagai gisa aurkeztu ahal izango dira pertsonalki hala erabakitzen duten bazkide guztiak, Kontseilu Errektorearen aurrean hala jasozaziz.

Bi. Bi bazkide-komunitateetako oinarriko kontsulta-organoak –hau da, Batzorde Kontsumeristak eta Kontseilu Sozialeko Batzorde Delegatuak– izango dira hautagaitzak proposatzeko bideak. Edozein kasutan, bazkide-komunitate bakoitzak bere kideen artean dagozkion hautagaitzak proposatu eta babesteko ahalmena soilik izango du.

Hiru. Lan-bazkideek, bazkide kontsumitzaileen izaera izan arren, lan-bazkide izateko baino ezin izango dute gauzatu ondore horietarako.

Lau. Batzorde Kontsumerista bakoitzak edo Batzorde Delegatu bakoitzak 2 hautagaitza aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Aurkezpena Kontseilu Errektorearen aurrean egingo da Kontseilu Kontsumeristaren edo Kontseilu Sozialaren bitartez, dagokionaren arabera.

Bost. Hautagai-zerrenda aurkezteko epea, gehienez ere, zazpi egun naturalekoa izango da, Batzar Nagusiaren deialdia argitaratzen denetik; balio gabetzat joko dira data horretatik aurrera egindako aurkezpenak.

Sei. Kontseilu Errektoreak egingo du hautagaien hasierako zerrenda, honako hauek osatuko dutena:

- a) Batzorde Kontsumeristek eta Batzorde Delegatuek aurkeztutakoak, artikulua honetako bi eta lau apartatueta ezarritakoaren arabera.
- b) Pertsonalki aurkeztutakoak, baldin eta artikulua honetako Bat apartatuaren baldintzak betetzen badituzte.

Zazpi. Hautagaien artean Kontseilu Kontsumeristak bozketa egingo du hautagai kontsumitzaileei dagokienez eta Kontseilu Sozialeko Batzorde Delegatuen Batzarrak lan-bazkideen hautagaiei dagokienez, bazkide-komunitate bakoitzeko behin betiko hautagaitzaren ordena zehaztu ahal izateko. Aukeraketa hori egiteko, bertaratzen den bakoitzak talde sozial bakoitzeko bazkideak ordezkatzeko Kontseilu Errektorean, Jagoletza Batzordean eta Errekurtsio Batzordean dauden postuak adina bazkideri eman ahal izango dio botoa. Berdinketa gertatuz gero, antzinateasun handieneko bazkidearen alde ebatziko da.

Zortzi. Kontseilu Errektoreak aldarrikatuko ditu hautagaitzak.

66. artikulua. Bozketak eta hautaketa

Bat. Batzar Nagusian Delegatuek aldarrikatutako hautagaiei soilik eman diezaiekete botoa.

Bi. Batzar Nagusiko Delegatuek, gehienez ere, Kontseilu Errektorean, Jagoletza Batzordean eta Errekurtso Batzordean bazkide-komunitate bietako bakoitzaren ordezkartzan bete behar diren postuak beste hautagairi emango diete botoa.

Hiru. Kontseilu Errektoreko, Jagoletza Batzordeko eta Errekurtso Batzordeko kide izendatuko dira Delegatuen Batzar Nagusian boto gehien jaso dutenak eta, edozein kasutan, Estatutu Sozialetako 56. artikuluaaren “Bat” puntuan, 71. artikuluaaren “Bat” puntuan eta 73. artikuluaaren “Bi” puntuan Kontseilu Errektorearen, Jagoletza Batzordearen eta Errekurtso Batzordearen osakerari buruz ezarritakoa beteko da. Botazio-zerrendan hurrena datozenak, kopuru berdinean, hauteskunde-ekitaldi berean hautatuen ordezeko bezala ordenatuak izango dira ordeztuari geratzen zaion agintaldirako, bakoitzak lortutako botoen kopuruaren arabera. Berdinketa gertatuz gero, antzintasun handieneko bazkidearen alde ebatziko da.

IV. Kapituluua.

KONTSEILU KONTSUMERISTA (Estatutuetao 61. artikulua)

67. artikulua. Kontzeptua

Kontseilu Kontsumerista Kontseilu Errektorearen kontsulta- eta aholkularitza-organoa da, kontsumitzaileari erreferentzia egiten dioten alderdietan. Kontseilu Errektoreak gaiaren inguruan ezarritako arau guztien arabera proposatzen dizkion funtzio guztiak hartuko ditu bere gain.

68. artikulua. Ahalmenak

Honako ahalmen hauek ditu:

- a) Kooperatibaren jarduera kontsumeristak prestatzen laguntzea Kontseilu Errektoreari.
- b) Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpnaren xede eta aplikazioko irizpideetan parte hartzea, bereziki Batzorde Kontsumerista Lokalei dagozkienetan, Batzarretik sortutako oinarrizko jarraibideen arabera.
- c) Kooperatibako Kontseilu Errektorarako bazkide kontsumitzaileen hautagaiak proposatzea Araudi honetako 65. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.
- d) Bazkide kontsumitzaileen zehapen-errekurtsioak ezagutzea eta horiei buruz lehen instantzian txostena egitea, Kontseilu Errektoreari erabakiaren berri emanez.
- e) Esleitzen zaizkion aholkularitza- eta informazio-eginkizunak.

69. artikulua. Osaera eta antolamendua

Bat. Kontseilua hiru hilean behin bilduko da gutxienez, Kontseilu Errektoreko lehendakaritzak edo horrek aholoretutakoak deitu eta gidatuta.

Bi. Kontseilu Kontsumeristako kide izango dira bazkide kontsumitzaileen Prestamen Batzar bakoitzak aukeratutako bazkide kontsumitzaileen ordezkari bat, lau urteko aldirako, Kontseilu Errektoreko Lehendakaritza, Batzorde Lokaletako Lehendakaritzak eta bazkide kontsumitzaileen kudeaketa-erantzukizunak izango dituen Zuzendaritza, idazkari-lanak egingo dituen. Kontseilu Kontsumeristaren bileretara aholkulari gisa joateko aukera izango dute Kontseiluak berak eskatutakoek edota Kontseilu Errektoreak proposatutakoek.

70. artikulua. Batzorde Delegatu Iraunkorra

Kontseilu Kontsumeristako kideen kopurua handia bada, Kontseilu Kontsumeristaren Batzorde Delegatu Iraunkorra sortu ahal izango da, funtzionaltasun-arrazoiak medio. Kontseilu Errektoreak onetsita sortuko da, bere ekimenez edo Kontseilu Kontsumeristaren ekimenez. Une horretan ezarriko dira Kontseilua osatuko duten delegatuen kopurua, horiek aukeratzeko modua eta Batzordearen eskumenak.

Batzorde Delegatuaren Lehendakaritza eta Idazkaritza kargu horiek Kontseilu Kontsumeristan betetzen dituztenek hartuko dute.

V. Kapituluia.

BATZORDE KONTSUMERISTA LOKALA (Estatutuetakako 33. eta 62. artikulua)

71. artikulua. Kontzeptua

Batzorde Kontsumerista Lokala ordezkari-organoa da, tokiko bizimodu kontsumerista indartzea eta koordinatzea xede duena eta organo sozialen aurrean aholkularitza-, informazio- eta kontsulta-izaerarekin jokatu duena.

72. artikulua. Ahalmenak

- Kooperatibaren ekintza sozialak koordinatzea eta haietan lagundu eta parte hartzea, eta baita jarduerak kontsumeristetan ere.
- Bere jardueraren garapen hobetzerako behar duen gizarte- eta enpresa-arloko martxari buruzko informazioa izatea.
- IPHNEren baliabideak administratzea, ezarritako irizpideen arabera esleituta eta Kontseilu Errektoreak onetsitako urteko kudeaketa-planarekin bat etorritik.
- Une bakoitzean eskuordetzen zaizkion ahalmenak erabiltzea Kontseilu Errektoreak ezarritako muga eta terminoetan.

73. artikulua. Helburuak

Bat. Kooperatibaren helburu soziala hobetzen lagunduko duten jarduketak egiten ahaleginduko da eta, batik batik, kontsumitzaileak prestatzekoak eta haien eskubideak defendatzekoak, bere herrian edo ingurunean kontsumo-jarduerak sustatuta erakundearen baliabideen laguntza teknikoarekin edo erakundeak sustatutako kontsumo-jarduerak koordinatuta.

Bi. Urtero planifikatuko du jarduerak, ekitaldi ekonomikoarekin bat etorritik eta hura onestea dagokien organo sozialen esku utzita. Organo sozial horien aurrean erantzun beharko du, eta horien aginduak bete beharko ditu.

74. artikulua. Eraketa eta osaera

Bat. Batzordea honako prozedura hauetako baten bitartez eratu ahal izango da:

- Informazio Batzar Lokalak hala proposatzen duelako.
- Herri batean baldintza egokiak betetzen direla uste dutenez, Kooperatibako organo sozialek eratzea proposatzen dutelako.

Bi. Bi kasuetan Kontseilu Errektoreak onetsi behar du Batzordearen eraketa formala.

Hiru. Batzordeko kideak Informazio Batzar Lokalak izendatuko ditu. Hamar kidek osatuko dute, gehienez.

Lau. Batzordeko kideen agintaldiak lau urteko iraupena izango du, eta Informazio Batzar Lokalak edo Batzordeak berak nahi beste aldiz hautatuak izan daitezke. Karguak bi urtez behin berrituko dira, eta erdika egingo dira.

Bost. Herriko dendaburua edo, denda bat baino gehiago egonez gero, Zuzendaritza Sozialak izendatzen duena Batzordeko kide izango da, hitzarekin eta botoarekin.

75. artikulua. Antolamendua

Bat. Batzorde Kontsumerista Lokaletan Lehendakaria, Lehendakariordea eta Idazkaria izendatuko dira.

Bi. Lehendakariaren egitekoak izango dira Batzordea koordinatzea, haren bilerak deitzea eta zuzentzea, bere lan-egitasmoa proposatzea eta Kooperatibako organoen aurrean Batzordearen bozeramaile izatea. Behar denean, Lehendakariordeak ordeztuko du Lehendakaria. Idazkariak jasoko ditu aktan bileretan hartutako erabakiak, eta Batzorderako beharrezkoa den dokumentazioa gorde eta koordinatuko du.

Hiru. Kooperatibako bazkide kontsumitzaileen kudeaketa-erantzukizunak dituen Zuzendaritzak hartuko du bere gain Batzordeen koordinazioa eta aholkulari eta laguntza tekniko gisa arituko da haien aurrean.

VI. KAPITULUA. Indargabetua

76. artikulua. Indargabetua

VII. Kapitularia.

KONTSEILU SOZIALA (Estatutuetao 59. artikulua)

77. artikulua. Kontzeptua

Kontseilu soziala lan-bazkideek osatutako organoa da, haiekin zerikusia duten gaiez dakiena langileak direlako, Kooperatibaren helburu sozialarekin zerikusia duten gainerako galetan dituen aholkularitza- eta informazio-funtzioei kalterik egin gabe.

78. artikulua. Ahalmenak

Bat. Kontseilu Sozialak Kooperatibaren funtzionamenduarekin zerikusia duten galetan parte hartu eta lagunduko du, eta, bereziki, bazkideei langileei eragiten dietenetan.

Bi. Organo horrek bete beharreko eginkizunen artean honako hauek daude:

- Lan-bazkideen Prestamen Batzarretan buru izatea, Kontseilu Errektoreak ahalordetuta eta kasu bakoitzean berretsita.
- Administratzaileak informatu, aholku eman eta haien kontsultei erantzutea lan-harremanei dagokien guztian; gai horiei buruz nahitaezko txostena egin beharko du.
- Lan-bazkideen zehapen-errekurtsoak ezagutzea eta horiei buruz lehen instantzian txostena egitea, Kontseilu Errektoreari hutssegite oso larrietan bere erabakiaren berri emanez, eta garrantzi txikiagokoetan zuzenean berak ebatziz, baldin eta Kontseilu Errektoreak ez badu aurkako erabakirik hartzen.

79. artikulua. Osaera

Bat. Kontseilu Soziala hamasei kide hautetsik osatuko dute gehienez, eta bere kopurua ezingo da inoiz hamabi baino gutxiagokoa izan. Kontseilu Errektoreak, Kontseilu Sozialak proposatuta, kasu bakoitzean erabakiko ditu kide-kopurua, eskualde-barrutiak eta horietako bakoitzaren ordezkarien proportzioa, honako irizpide hauek kontuan hartuz:

- Eremu horietan dauden lan-bazkideen dentsitatea.
- Eremu bateko zentroen arteko sakabanaketa geografikoa.

Bi. Kide hautetsiez gain, Kontseilu Sozialean egongo dira, hitzarekin baina botorik gabe, Kontseilu Errektoreko Lehendakaria eta Zuzendaritza Soziala edo lan-bazkideen kudeaketa-erantzukizunak dituen Zuzendaritza.

80. artikulua. Batzordekideen hautaketa

Bat. Kooperatibako bazkide guztiak izango dira hautesle eta hautagarri.

Bi. Kontseilu Errektoreak erabakitako eremu edo lurralde bakoitzak, bi itzuliko bozketa-sistemaren bitartez, zerrenda bakarria proposatuko dio Delegatuen Batzar Nagusiari, horrek berrets dezan.

Hiru. Kontseilu Sozialeko kide gisa proposatuko zaizkio Batzar Nagusiari boto gehien jaso dituzten barruti bakoitzeko hautagaitzak eremu edo lurralde bakoitzeko ordezkariak estaltzeko. Boto gehien lortzen dituzten hurrengoak, ordezeko gisa proposatuko dira.

Lau. Kontseilu Errektoreak jasoko ditu zerrenda bakarrean Kontseilu Sozialerako proposatutako hautagaitzak, Batzar Nagusiak berresteko aurkeztuko direnak.

81. artikulua. Agintaldia eta aginte-uztea

Bat. Agintaldiaren iraupena lau urtekoa izango da. Berritzea erdika egingo da bi urtetik behin. Lehen berritzean, kargua utzi behar duten kideak zozketa bidez izendatuko dira.

Bi. Kontseilu Sozialeko kide-tza uzteko kausa izango dira, agintaldia betetzeaz gain, honako hauek:

- a) Lan-bazkide izaera galtzea.
- b) Bera hautatu zuen lurralde edo eremua ez den beste batera aldatzea, bera bazen lurralde hartako Kontseilu Sozialeko ordezkari bakarra.
- c) Kausa larriagatik dimisioa, Kontseilu Sozialak onartuta.
- d) Bere karguari dagozkion betebeharrak ez betetzea, Kontseilu Errektorearen iritziz, eta Kontseilu Sozialak horretarako egindako espedientearen ondoren.

Hiru. Behin betiko postu hutsak sortzen direnean, dagozkien ordezkoei beteko dituzte, ordezkutuari geratuko litzaiokeen agintaldirako bakarrik.

82. artikulua. Karguak hautatzea

Bat. Kontseilu Sozialak Lehendakaria, Lehendakariordea eta Idazkaria aukeratuko ditu bere baitan.

Bi. Kontseilu Sozialeko Lehendakaria Kontseilu Errektoreko berezko kidea izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

83. artikulua. Funtzionamendua

Bat. Kontseilu Sozialak hilean behin egingo du, gutxienez, ohiko bilera. Baita Lehendakariak egoki irizten dion guztietan edo kideen heren batek, gutxienez, eskatzen duenean.

Bi. Deialdiak Idazkaritzak egingo ditu eta, Gai Zerrendarekin batera, bileraren data eta ordua adieraziko ditu.

Bileretara, Kontseilariak gain, une bakoitzean egokituz jotzen diren pertsonak deitu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe.

Hiru. Kontseilu Soziala balio osoz erabakia geratuko da kideen erdiak gehi bat bilerara joaten direnean. Norberak joan behar du eta ezingo da, beraz, inor ordezkatu, eta erabakiak bildutakoen gehiengo soiluz hartuko dira. Lehendakariak zuzenduko ditu bilerak, eta bere botoak erabakiko du berdinketetan.

Lau. Idazkaritzak egingo du bilera bakoitzaren akta. Aktak hurrengo bileran onetsiko dira, erabakiak hartzen diren unetik betearazleak izateari kalterik egin gabe, Araudi honetako 77. artikuluan ezarritakoa izan ezik.

84. artikulua. Kontseilu Sozialeko Batzorde Delegatuak

Bat. Barruti edo lurralde bakoitzean, Kontseilu Sozialaren Batzorde Delegatu bat erabakiko da, lan-bazkideen ordezkari gisa aukeraturakoa, Kontseilu Sozialari eta zentroetako bazkideei aholkuak eta informazioa emateko xedez.

Bi. Organo horiek Kontseilu Sozialaren ordezkari gisa arituko dira, eta haien eskumenak eta erantzukizunak Araudi espezifiko batean zehaztuko dira.

VIII. Kapitulua.

SEGURTASUN- ETA OSASUN-BATZORDEA

85. artikulua. Kontzeptua

Segurtasun eta Osasun Batzordearen oinarriko egitekoa izango da laneko arriskuen prebentzio-erloto xedapenak betetzen direla zaintzea eta laneko baldintza fisikoen pixkanakako hobekuntzarako behar diren ekintzak proposatzea.

86. artikulua. Osaera

Segurtasun eta Osasun Batzordea ildo betearazle eta teknikoko ordezkariak eta Kontseilu Sozialak eratuko dute eta, gutxienez, hiru hilean behin egingo ditu bilerak.

87. artikulua. Ahalmenak

Segurtasun eta Osasun Batzordearen ahalmenak izango dira:

- a) Laneko arriskuen prebentziorako indarreko xedapenak betetzea.
- b) Segurtasuneko eta Osasuneko urteko Kudeaketa Plana egitea.
- c) Kooperatibako bazkideen lantokietara, zerbitzuetara eta guneetara bisitak egitea, ordenaren, garbiketaren, giroaren, instalazioen, makinaren, tresnen eta lan-prozesuen inguruko baldintzak ezagutzeko, bazkideen bizitzan edo osasunean eragina izan dezaketen arriskuak egiaztatzeko eta ikusitako akatsak eta arriskuak Kooperatibako Zuzendaritzari jakinarazteko eta, hala dagokionean, behar diren prebentziozko neurriak eta egokitzat jotzen dituen beste batzuk hartzea proposatzeko.
- d) Bazkideei egin beharreko azterketa medikoen praktikaz interesa piztea, indarreko xedapenetan xedatutakoaren arabera.
- e) Kooperatiban suteen aurkako borroka behar den bezala antolatuta dagoela zaintzea.
- f) Kooperatiban izaten diren lan-istripuei eta laneko gaixotasunei buruz teknikariak egindako ikerketak ezagutzea.
- g) Kooperatiban izandako istripuen eta laneko gaixotasunen kausak ikertzea, batzuk eta besteak ekiditeko xedez eta, kasu larri eta berezietan, dagozkien txostenak egitea.
- h) Segurtasun eta Osasun arloan bazkide guztiek prestakuntza egokia jasotzen dutela zaintzea eta haien arteko lankidetzat sustatzea, lan-istripuen eta laneko gaixotasunen prebentziozko neurriak praktikan jartzeko eta betetzeko orduan.
- i) Laneko Segurtasun eta Osasuneko programak eta kanpainak egiten eta garatzen laguntzea, erakunde publiko, pribatu edo barnekoetatik sortzen diren planetako orientazio eta jarraibideekin bat etorriz, eta kasu bakoitzeko emaitzak haztatzea.
- j) Segurtasunaren eta Osasunaren irakaskuntza, hedapena eta propaganda sustatzea bazkideentzako ikastaro eta hitzaldien bitartez, zuzenean edo erakunde ofizial edo sindikal espezializatuen bitartez, segurtasun-kartelak eta -oharrak jarrita eta aipaturiko gai-ordenari buruzko gai eta arazoei buruzko lehiaketak antolatuta.
- k) Egindako jarduerari buruz urtean txosten bat idaztea eta Kooperatibako Zuzendaritzari eta Kontseilu Sozialari kopia bana bidaltzea.
- l) Materialei, instalazioei eta Kooperatibaren gainerako prozesu fisikoei buruzko informazioa ezagutzea.

88. artikulua. Kooperatibaren betebeharrak

Bat. Kooperatibak konpromisoa hartzen du bazkideek euren osotasun fisikoa babesteko behar dituzten segurtasun- eta osasun-neurriekin lan egiteko baliabideak eta baldintzak emateko eta laneko baldintza fisikoak pixkanaka-pixkanaka hobetzeko.

Bi. Kooperatiba behartuta dago honako hauek egitera:

- a) Laneko Segurtasun eta Osasuneko arloetan Kooperatibaren zentroetan eta lantokietan aplikatu beharreko xedapenak betetzera, horietan egiten diren lan-jarduerak direla-eta.
- b) Bai laneko makinak eta tresnak segurtasun-baldintza onetan mantentzeko eta bai Kooperatibako bazkideentzako Zerbitzu Medikoek, instalazio sanitarioek eta higienez-erbitzuek behar den bezala funtzionatzeko behar den guztia hornitzera.
- c) Bazkideek egiten dituzten lanetarako egokiak diren banakako babeseko nahitaezko neurriak eskaintzera.
- d) Bazkideei babes-neurriak erabiltzeko eta Segurtasun eta Osasuneko arloan indarrean dauden jarraibide eta zehaztapenak betetzeko eskatzera.
- e) Bazkideei urtean behin azterketa medikoak egitera, eta maiztasun handiagoarekin laneko gaixotasunerako arrisku berezian lan egiten duten bazkideei.
- f) Argibide idatzien bitartez, zuzendarien, teknikarien eta erdi-mailako arduradunen ahalmenak eta betebeharrak zehaztera, laneko istripuak eta gaixotasunak prebenitzeko.
- g) Sortzen diren prebentzio-akatsei buruzko eta ikusten diren arriskuei buruzko informazio egokia lortzeko aukera ematen duten bideak ezartzera.
- h) Behar diren prestakuntzaren eta informazioaren bitartez, Segurtasun, Higiene eta Ongizate arloan bazkide guztien lankidetzatza sustatzera.
- i) Bazkideari, bete behar duen edozein lanpostu hartzeko unean, lanpostu horretako zereginak ondo egiteko informazioa eta trebakuntza ematera. Lanpostu guztiek adierazita izango dituzte Segurtasun eta Osasuneko arloan dagozkien argibideak eta zehaztapenak.
- j) Kooperatiban garatuko diren birmoldaketa-proiektuetan, produkzio-prozesuen funtsezko aldatketetan eta antzekoetan Segurtasun eta Osasuneko baldintzei buruzko azterlan espezifikoak txertatzera.
- k) Lantoki guztietako arrisku-mapa, Segurtasun eta Osasun Batzordeak egingo duena, bazkideen eskura jartzera.

Hiru. Kooperatibak eman edo ordaindu beharko ditu nahitaez erabili beharreko uniformeak. Ez dago behartuta arropa arruntak ematera edo ordaintzera.

89. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bazkideen betebeharrak hauek izango dira segurtasun- eta osasun-arloan:

- a) Kooperatibako laneko arriskuak prebenitzen eta ahalik eta higiena handiena izaten laguntzea.
- b) Segurtasun eta Osasuneko arloan lanpostuko argibideak eta zehaztapenak betetzea.
- c) Babes-neurri pertsonalak behar den bezala erabiltzea eta haiek egoera onean edukitzea.
- d) Edozein zentro edo lanpostutan arriskuak eragin ditzaketen matxura eta akatsen berri berehala ematea.
- e) Kooperatibako edo Lagun Aroko Zerbitzu Medikoak agindutako mediku-azterketak, txertaketak edo immunizazioak egitea.

IX. Kapituluua.

ZUZENDARITZA-KONTSEILUA (Estatutuetako 65. artikulua)

90. artikulua. Kontzeptua

Zuzendaritza Kontseilua Zuzendaritzaren kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa eratzen da, eta baita zuzendaritza-taldearen funtzioak koordinatzeko organo gisa ere.

91. artikulua. Osaera

Zuzendaritza Kontseiluaren buru Zuzendaritza Nagusia izango da, eta kideak, berriz, Saitetako Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Nagusiak egokitzen jotzen dituen pertsona guztiak.

92. artikulua. Funtzionamendua

Zuzendaritza Kontseilua aldiro-aldiro bilduko da, gutxienez hilean behin, eta baita Zuzendaritza Nagusiari komenigarria iruditzen zaion bakoitzean ere.

X. Kapitula.

KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIO

ERREGULATZAILEA

93. artikulua. Gainegiturako erakundeetan parte hartzea

Kontseilu Errektoreak ezarriko ditu hautatzeko prozedurak edo zuzenean izendatuko ditu, Araudi honetako 31. artikuluan definitutakoaren arabera parte hartzen duen gainegiturazko erakundeetan duen partaidetzagatik Kooperatibari legezkoiekeen konpromisario edo ordezkarien estaldura bete ahal izateko.

94. artikulua. Kontseilu Errektorearen ordezkariak

Bat. Kontseilu Errektoreak –bere Kooperatibaren gobernuko erantzukizunaren egikaritzan eta enpresa-eraginkortasun handiago bat lortzeko eta bazkideek gehiago parte hartzeko neurri gisa–, Kontseilu Kontsumerista, Batzorde Kontsumerista eta Kontseilu Soziala bezalako tarteko organoen esku uzten ditu Araudi honetako artikulua egokietan definitutako alderdi eragileak.

Bi. Kooperatibaren gobernuaren prozesu deszentralizatzaile horrek izaera mugatzailerik ez duenez, aipaturiko eskumenak eta ordezkariak zabaldu egin ahal izango dira estatutuak ahalbidetzen duen arloetan, eta baita helburu soziala lortzen modu eraginkorragoan lagunduko duten beste organo batzuk sortzen ere.

Hiru. Kontseilu Errektorearen gai eskuordetuei buruzko azken erantzukizuneari duen ukalezintasunak, eskuordetzeak erabiltzeko orduan aipaturiko organoek esleitutako eskumeneren mugak gainditutakoan edota indarreko erregelamenduaren eta arauen aurkakoak direnean, emandako eskuordetzeak indargabetzeko edo ezabatze eskumenak ematen dizkio.

1. XEDAPEN GEHIGARRIA

Kooperatibako Barne Araudi hau, behar denean, Estatutu Sozialetan edo Araudi honetan ezarritakoa inolaz ere ezeztatu ezingo duten eta Kontseilu Errektoreak onetsiko dituen araudi eta erabakien bidez garatuko da, baldin eta gaia Kooperatibako beste organo batean eskuordetzen ez badu.

2. XEDAPEN GEHIGARRIA

Kontseilu Errektoreak ebatziko ditu Araudi honen interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak, eta ez-egiteak ordeztuko ditu, egiten den lehen Batzar Nagusian garrantzitsutzat jotzen dituenen berri emanez.

Kooperatibako Barne Araudia

2025ko ekainaren 2an
Delegatuen Batzar
Nagusian onetsia